



KONTROL OFIZIALAREN NORMALIZAZIOA EAE-KO ESPEZIE HANDIEN HILTEGIETAN

> JANARI-SEGURTASUNA. GRANJATIK ETA MAHAIRA BITARTEKOA



KONTROL OFIZIALA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA
Osasun Sailordetza
Osasun Publikorako Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE SANIDAD
Viceconsejería de Sanidad
Dirección de Salud Pública

KONTROL OFIZIALAREN NORMALIZAZIOA EAE-KO ESPEZIE HANDIEN HILTEGIETAN

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE SANIDAD

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2007

Egileak: Lucía Díaz de Lezana Guinea
 Lourdes Abadía Lasilla
 José M.^a Escudero
 Adoración Cortés Alonso

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Osasun Saila. Osasun Sailordetza. Osasun Publikorako Zuzendaritza

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
Donostia kalea, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Argazkia: Mikel Arrazola

Diseinua: Equisbé

Aurkezpena

Giza aurrerapenak eta ongizateak harreman zuzena dute osasuna babesteko neurriekin, gizartearen eskaririk esanguratsuenetarikoarekin, hain zuzen ere. Osasun Sailean lan egiten dugunon helburu nagusien artean, osasunaren babesean maila altua lortzea da, bai janariari dagokionez, bai -eta berariaz- janarien ekoizpen higienikoari dagokionez. Janari seguruak merkaturatzea janari-establezimenduen eta berauek kudeatzen dituztenen erantzukizuna da; Administrazio Sanitarioak, bere aldetik, arauak betearaziko direla bermatu beharko du, establezimendu horien kontrol ofizialaren bidez; establezimendu horien artean hiltegiak aurkitzen dira dira.

Baldintza hori bermatzeko, «EAEko janari-establezimenduetan kontrol ofizialen normalizazio-prozesua» egin du Osasun Sailak. Gainontzeko janari-establezimenduetan bezala, hiltegietako kontrol ofizialek beharrezkoak dituzten tresnak dituzte euren antolaketarako eta jarduerarako, establezimendu bakoitzak duen arriskua zein den ezarritako maiztasunaren arabera eta berriki argitaratutako europar araudiaren arabera.

Kontuan izanda, horiez gain, Albaitari Ofizialek hiltegietan bertan egon beharra dutela etenik gabe, industriaren jarduera ikuskatu eta gainbegiratu egin behar dutela eta lan horiek Europako Araudiak argi eta garbi zehaztuten dituela, «Kontrol Ofizialaren Normalizatutako Plana EAEko espezie handien hiltegietan» dokumentua idatzi da. Dokumentuak, batetik, kontrol ofizialen deskribapena egiten du, Osasun Sailak planteatu zuen ikuspegi berri hori kontuan izanda, eta bestetik ondoko irizpide hauen arabera kontrolak egitea du helburutzat: kalitatea, homogeneitatea, ekintza, arriskuaren arabera kontrolaren maiztasuna eta abar.

Kalitate bikainekotzat jotzen den hiltegietako haragiaren ikuskapena hobetzeko asmoarekin idatzitako dokumentu honetan, ondoko kontzeptu hauek sartu dira: irizpideen homogeneitatea, ikuskapenen maiztasuna, Albaitari Ofizialen, Operadore Ekonomikoen edo bestelako Erakunde Ofizialen artean emaitzak jakinaraztea, jardueraren erregistroa eta abar. Izan ere, aipatutako horiek guztiak albaitaritzako ikuskapenaren beraren kalitaterako eta bermerako kontzeptuak dira, eta sektorean azken urteetan egindako instalazioen eta organizazioaren hobekuntzarekin batera, EAEko hiltegietatik merkaturatzen den haragiaren kalitatea erabat hobetuko dute.

Gabriel M^a Inclan Iribar
Osasun Sailburua

Eskerrak

Hiltegieta Osasun Publikoko Teknikoei eskerrak eman nahi dizkiegu hasierako dokumentuari egindako ekarpenengatik, behin-betiko dokumentua hobetzeko guztiz baliagarriak izan direlako.

Halaber, Matadero Frigorífico Donostiarra, S.A.L eta Sociedad Ganadera Gurokela 2004 S.L enpresetako operario eta zuzendaritzako kideen elkarlana ere eskertu nahi dugu, lan hau ilustratzeko erabili diren argazkiak enpresa horietan egin baitira.

Azkenik, Javier García jaunak, Osasun Publikoko Programen Zuzendariak, Osasun Publikoko Zuzendaritzatik eman duen laguntza ere bereziki eskertu nahi dugu.

aurkibide orokorra

SARRERA	7
A KAPITULUA:	
Elika-kateari buruzko informazioa	23
B KAPITULUA:	
Abereen ongizatea	31
C KAPITULUA:	
Ante-Mortem ikuskapena	39
D KAPITULUA:	
Post-Mortem ikuskapena	51
E KAPITULUA:	
Zigilatzea eta markatzea	69
F KAPITULUA:	
Higienea sakrifizioan	77
G KAPITULUA:	
Arriskuko Material Espezifikoen kontrola	87
H KAPITULUA:	
Azpiproduktu, konfiskazio eta itzulketen kontrola	99
I KAPITULUA:	
Enpresaren dokumentu-erregistroaren kontrola	113
J KAPITULUA:	
Ikuskatzearen emaitzak jakinaraztea	121



sarrera

Helburua

Erantzukizunak

- > Operadore ekonomikoarena
- > Ikuskatze-laguntzailearena
- > Albaitari ofizialarena

Egin beharreko kontrolak

- > Ikuskatzea/gainbegiratzea
- > Ikuskatzearen maiztasuna
- > Erabakia-jarduna
- > Erregistroa/txostena
- > Eranskinak

ESPEZIE HANDIEN HILTEGIAK.

KONTROL SANITARIOAREN NORMALIZAZIOA. IKUSKAPENAREN

ALDERDI OROKORRAK

HELBURUA

- > Establezimenduen ikuskapen-sistematika normalizatzea, ikuskapen-lan guztiak kalitatearen aldetik uniformeak izango direla bermatzeko.
- > Janari-establezimenduetan egiten diren jarduerak mailakatzea, dakarten arriskuaren eta herritarrengan duten inpaktuaren arabera.
- > Araudiaren eskakizunak bete daitezela bermatzea, alderdi hauei dagokienez:
 - > Gainbegiratze-irizpideak
 - > Maiztasuna
 - > Emaizten jakinarazpena
 - > Neurri zuzentzaileak hartzea
 - > Jarduketaren erregistroa

ERANTZUKIZUNAK

Operadore ekonomikoarena:

Operadore ekonomikoaren erantzukizuna janariak hornitzeko sistema segurua diseinatzea da. Gainera, elikagaien inguruko legeak eta segurtasun-neurriak betearazteaz arduratu behar du; bera baita horren arduradun legal nagusia.

Oinarrizko printzipio hori kontuan hartuta, janari-enpresetako ustiatzaileek, ezinbestean, enpresaren jarduerari dagokien arloetan elikagaiek aplikagarri zaizkien elikagai-araudi guztiak betetzen dituztela bermatu behar dute, ekoizpenaren etapa guztietan; eta, horrez gain, arau horiek betetzen direla ziurtatu. Halaber, HACCP sistemako printzipioetan oinarritutako prozedurak ezarri eta aplikatu beharko dituzte, eta erakunde eskudunekin lankidetzan jardun.

Nolanahi, kontrol ofizialak egiteaz gain, janari-enpresako operadoreek beren erantzukizun juridiko nagusia bete behar dute ezinbestean, hau da, elikagaien segurtasuna bermatzeko obligazioari erantzun behar diote beti.

Ikuskatze-laguntzailearena:

Bere eginkizunak albaitari ofizialak esanda bezala eta haren ardurapean betetzea.

Albaitari ofizialarenak:

Janari-establezimendua ikuskapena, daukan arriskuaren arabera, eta HACCP sistema auditatzea.

Hiltegietako albaitaritza-zerbitzu ofizialak (AZO) ikuskapen-lanak eta auditoria egin behar ditu, establezimenduak dituen arriskueta oinarrituta egoki ikusten duen adinako maiztasunez. Eginkizun horiek betetzerakoan, betiere, gogoan izan beharko ditu Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak prestatutako «EAEko janari-establezimenduetako kontrol ofizialen normalizazioa» izeneko prozesuan zehaztutako kalitate-irizpideak.

Euskadiko gainerako janari-establezimenduen kasuetan bezalaxe, HACCP sistemen ikuskapena eta auditoria egiteko ere badira zenbait tresna zehatz, bereziki lan horretarako sortuak:

- > «Espezie handien hiltegietako teknika», hiltegietarako exijitzen diren baldintzak eta betekizunak betetzen direla egiaztatzeko.
- > Ikuskatze-lana bera arautzen duten prozedurak:
 - > «Ikuskatze-prozedura orokorra»
 - > «Janari-establezimenduetan esku hartzeko prozedura»
 - > «Alertak abiarazteko eta jarraipena egiteko prozedura»
 - > «Funtzionatzeko osasun-baimena lortzeko prozedura»
 - > «Salaketak, jakinarazpenak eta erreklamazioak abiarazteko eta jarraipena egiteko prozedura»
 - > «Gaixotasun-agerraldiak ikertzeko prozedura»
 - > «Janari-establezimenduak sailkatzeko prozedura»
- > HACCP auditorien prozeduren aktibitatea arautzen duten prozedurak:
 - > «HACCP dokumentuak berrikusteko prozedura»
 - > «HACCP dokumentuak berrikusteko instrukzio teknikoak (IT)»
 - > «HACCP auditorien prozedurak»
 - > «HACCP auditorien IT»

Bestalde, albaitari ofizialak uneoro hiltegian presente egon behar duenez, kontrola ere uneorokoa izango da: hiltegira sakrifikatzaera eraman dituzten animaliak ikuskatuko ditu (ante-mortem eta post-mortem) eta enpresak produktu seguruak ekoizteko egiten dituen jarduera guztiak ere gainbegiratuko ditu.

Ikuskatze- eta gainbegiratze-funtzio horiek prozedura normalizatu honek agintzen dituen irizpideak eta maiztasuna aplikatuz egin beharko ditu. Izan ere, prozedura honetan argi zehazten da ikuskapen- nahiz gainbegiratze-lanen zein alderdi landu beharko dituen, kontrolak zenbatean behin egin behar diren, kasu bakoitzean zein neurri hartu behar diren, kontrol-lana nola erregistratu behar den, eta emaitzak nola komunikatu behar diren.

ZEINEK DIREN gainbegiraketa/ikuskapena behar duten parametroak

NOIZ egin behar da kontrola

NOLA egin behar da aktibitatea

ZER EKINTZAK egin behar dira intzidentziak gertatzen direnean

kontrolaren aktibitatearen ERREGISTROA

Emaitzen JAKINARAZTEA.

KONTROL OFIZIALETAN EGIN BEHARREKO LABORATEGIKO PROBA OSAGARRIAK

Kontrol-jardueraren barruan, bestelako proba analitikoak ere egiten dira, post-mortem ikuskapen-lanaren osagarri. Proba horien sistematika finkatzen duten prozedurak, alabaina, aldatu egiten dira etengabe, lortutako datuak ebaluatzen diren heinean, legeak aldatzen diren heinean eta abar; horregatik, ezin ditugu dokumentu honetan jaso.

Hala eta guztiz ere, proba osagarri horien inguruko prozedurak aipatuko ditugu, hain justu ere, kontuan hartu eta bete ditzaten kontrol-zerbitzuetara ofizialki bidaltzen dituzten prozedurak:

- > Haragi freskoetan trichinella detektatzeko prozedura
- > EEB gaixotasunak detektatzeko laginak hartzeko prozedura
- > Haragietan hondakinak detektatzeko laginak hartzeko prozedura.
- > Kanal eta azaleratan higie-ne-kontrol erregularrak zein lagin-hartzeak gainbegiratzeko prozedura-gidaliburua
- > Abereen gaixotasunen diagnostiko anatomiko, patologiko, bakteriologiko eta parasitologikoa egiteko lagin-hartzea

HARAGI FRESKOEN IKUSKAPENEAN EGIN BEHARREKO KONTROLAK

Ikuskatze Zerbitzuek egitekoak diren kontrolak bereizita, banan-banan, azalduko ditugu, bakoitza honako atal hauetako bakoitzean:

- A. ELIKA-KATEARI BURUZKO INFORMAZIOA:
- B. ANIMALIEN ONGIZATEA
- C. ANTE-MORTEM IKUSKAPENA
- D. POST-MORTEM IKUSKAPENA
- E. MARKATZE SANITARIOA
- F. HIGIENEA SAKRIFIKATZEAN
- G. ARRISKUKO MATERIAL ESPEZIFIKOAK (AME)
- H. KONFISKAZIOAK, AZPIPRODUKTUAK ETA AME-AK DESEGITEKO KONTROLAK
- I. INDUSTRIAREN ERREGISTRO DOKUMENTALAREN KONTROLA
- J. IKUSKAPENAREN EMAITZAK JAKINARAZTEA

Kapitulu horietako bakoitzean 5 alor aztertuko ditugu:

- 1. IKUSKAPENA
- 2. IKUSKAPENAREN MAIZTASUNA
- 3. ERABAKIA-JARDUNA
- 4. ERREGISTROA/TXOSTENAK
- 5. ERANSKINAK

1. GAINBEGIRAKETA / IKUSKAPENA

Gainbegiraketa hiltegiaren bertan egiten den jardueraren kontrolatzea da, abereak iristen direnetik, haragia kanpora bidaltzen den arte.

Ikuskatzea, berriz, ante-mortem eta post-mortem ikuskapena bera da.

Atal honetan, AZOk gainbegiratu beharreko irizpideak aztertuko ditugu, aurreko atalean zehaztutako kapitulu bakoitzari dagokionean: «Haragi freskoak ikuskapenean egin beharreko kontrolak». Deskribapen horrek protokolo bat du lotuta (check-list), egindako gainbegiratzeren emaitzen erregistroa eraman ahal izateko. Bai deskribapena eta bai protokoloak zenbakitan jarrita daude, elkarren artean ez ezik, hartu beharreko erabakiarekin lotzen dituen kode baten bidez.

Gainbegiratzeari buruzko ataletan zehaztutako irizpideak hiltegietan exijitzen diren baldintzen deskribapen xehekatuan oinarrituta finkatu dira («Espezie handien hiltegiatarako instrukzio teknikoak»).

Hiltegiak -EAEko gainerako janari-establezimenduak bezalaxe- Osasun Sailak prestatutako «EAEko establezimenduen kontrol ofizialaren prozesu normalizatua» esaten zaion prozeduraren barruan sartuta daude, eta hiltegietako instrukzio teknikoak argi zehazten du establezimenduek zer-nolako baldintzak (estrukturalak, antolakuntzakoak...) bete behar dituzten. Gainera, ikuskapen edo auditoriatan akatsik sumatuz gero, prozesu normalizatu horrek agintzen dituen paletak betetzen dituzte. Hori guztia finkatuta dagoenez, dokumentu honetan, hain zuzen ere, AZOk eguneroko jardunean errespetatu behar dituen betekizunak aipatuko ditugu, hala nola, produktuak maneiatzerakoan, mantentze-lanak egiterakoan, higiene-kontuetan eta abar. Kapitulu bakoitzean, hortaz, «Espezie handien hiltegietako instrukzio teknikoak» dokumentuan ikuskapen-irizpideak zehazki deskribatzen dituen puntuak landuko ditugu. Nolanahi, kapitulu honetan I Eranskina ere gehitu dugu, erregistro/txostenen itemak errazago bilatzeko eta arinago lotzeko instrukzio teknikoak item horiei ematen dien deskribapena ere azaltzeko.

Intzidentziatzat hartuko da deskribatutako atal horietako edozein punturen ez betetzea. Alderantziz, ez dira erregistratzeko moduko gorabeherak izango hiltegiak berak konpondu ahal izan dituenak, bere egiaztatze-sistemak erabiliz akatsa detektatu eta horri konponbidea emateko hartu beharreko neurriak hartu baditu. Nolanahi, beti jaso beharko da idatziz zer lan egin duen AZOk.

2. IKUSKAPEN-MAIZTASUNA

Atal honetan gutxieneko maiztasunak zehaztuko ditugu, bai kontrolak egiteko eta bai jardunen erregistroa jasotzeko.

Ikuskatu beharreko item guztiak hartu dira kontuan maiztasuna finkatzeko, betiere, bi puntu gogoan izanda: batetik, zenbateko arriskua dagoen haragiaren kalitate higienikoari begira eta, bestetik, zer xedatzen duen legeriak berak, kasu batzuetan argi eta garbi jasota baitauka kontrol-maiztasuna zein izango den.

Esan bezala, atal honetan zehaztutako maiztasunak gutxienekoak dira edozein kasutan. Hortaz, ikuskatzaileek berek aukera izango dute ikuskapenak sarriago egiteko, kasuan kasu tokatzen den egoeraren arabera, AZOk ikusten badu hiltegieta lan jakinen batengan kontrolak zorrotzagoa izan behar duela.

3. ERABAKIA-JARDUNA

Intzidentziarik gertatuz gero, AZOk zer egin eta zer neurri ezarri behar dituen deskribatuko dugu ondoren.

Jarduna/erabaki bakoitzaren deskribapena kodeen bidez zenbakituta agertzen da. Kode horiek erregistro/txostenen orrietan agertzen dira eta detektatutako intzidentzia bera eta horren inguruan hartu beharreko erabakia lotzen ditu.

Intzidentziaren bat sumatzen denean, kasu bakoitzerako adierazitako erabakia-jarduna hartu beharko da. Ondoren, intzidentziaren erregistroa jaso beharko da.

Nahiz eta deskribatutako jarduna/erabakietan gerta daitezkeen kasu guztiak biltzen saiatu garen, litekeena da bestelako gertakariak ere izatea, eta, ikuskatzailearen arabera, neurri pisutsuagoak hartu beharra izatea. Halakoetan ere, gertakariaren erregistroa jaso beharko du, eta adierazita utzi erregistro/txostenen orrietan.

4. KONTROL-JARDUNAREN ERREGISTRO-DOKUMENTUAK / KOMUNIKAZIO-TXOSTENAK

Kapitulu jakin batzuetan, AZOk duen aplikazio informatikoan bertan («Osasun-kontrola hiltegieta») egin daiteke jardunen erregistroa. Hala eginez gero, adierazi egin beharko da dagokion lekuan.

Erregistroa horrela egiteko aukerarik ez dagoenean, erregistro/txostenak izango dira AZOk egindako kontrol-lana jasota uzteko tresna, intzidentzien erregistroaz aparte. Horrez gain, erregistro/txostenak erabiliko dira intzidentziaren bat sumatu dela-eta egin diren kontrolen emaitzen berri enpresari emateko.

Halaber, erregistro/txostenak bete beharko dira, baldin eta, arrisku-maiztasunaren arabera finkatutako gutxienekoaz aparte, jardueraren beste edozein unetan, intzidentziak sumatzen badira.

Kontrolatu behar den kapitulu bakoitzak komunikaziorako erabiliko den erregistro/txostenaren eredua dakar. Ereduek horretan, honako puntu hauek deskribatu behar dira:

- > Kontrol-irizpideak.
- > Sumatutako intzidentzien kopurua. Intzidentziarik ez bada sumatzen, adierazi egin beharko da ez dela sumatu.
- > Ikuskatzaile ofizialak eskatu dituela-eta, enpresak aplikatu behar dituen neurri zuzentzaileak.
- > Sumatutako intzidentzia enpresak berak nola konpondu behar duen.

Ilunduta agertzen diren laukiak edo atalak ez dira bete behar. AZOk egin beharreko kontrolerako gida-lerro den informazio finkoa jasotzen dute. Protokolo bakoitzak dakarren informazioa orientagarria besterik ez da, eta informazio hori osatzeko aukera ematen du «Espezie handien hiltegien instrukzio teknikoan».

Ikuskatzaileek protokolo bakoitzari dagokion informazioa adierazi beharko dute, ilunduta ez dauden laukietan.

Laukietan ez badago lekurik beharrezko informazio guztia jartzeko, «Oharrak» jartzen duen atala erabili beharko da falta den informazioa ere jartzeko.

Kasu batzuetan, ezinezkoa izaten da sumatutako intzidentzia konpontzea (adibidez, animalia bati puntualki emandako tratu txarra); halakoetan, hurrengo ikuskapenean ikusiko da hurren inguruan ezer egin den. Gainera, kasuok erregistroetan erraz identifika daitezkeenez, «Intzidentzia konpondu da» atalean ez da BAI edo EZ jarri beharko une horretan. Alderantziz, hutsik lagako da edo gidoitxo bat marraztuko da, eta «Oharrak» atalean deskribatuko da gertatutakoa. Edonola ere, intzidentziak erregistratuta geratu behar du.

Erregistro/txostenetan erregistratutako emaitzak tarteka-tarteka aztertzeak aukera emango du bestelako ekintzak ere egiteko, baldin eta behin eta berriz hutsak egiten badira, ikuskatzaileak adierazitako okerrak ez badira konpontzen, egin beharreko konponketak egiteko emandako epeak gainditzen badira eta abar. Bestelako ekintza horiek J. kapituluaren datoz jasota: «Ikuskatzeen emaitzak jakinaraztea».

Gainbegiratze-lanak errazteko, aukera dago erregistro/txostenak erabiltzeko -prozedura honetan azaldu bezala- nahiz check-list esaten zaiona erabiltzeko (kapitulu honetan bertan dator, II. Eranskina da). Eranskin hori egin beharreko egiaztapenen gidoia edo zerrenda modukoa izango da, eta bai informatikoki edo bai paperean erregistratzen diren erregistro/txostenen eredura transkribatu beharko dira.

Inongo intzidentziarik ez bada sumatzen, ez zaie kopiarik emango establezimenduko arduradunei, eta bildutako datuak erregistro/txosten dokumentu ofizialetan bolkatu beharko dira (paperean nahiz ordenagailuan), egindako kontrol-lanaren erregistroa gera dadin.

Alderantziz, intzidentziarik sumatu bada, ikuskapen/gainbegiratzea egin duen albaitari ofizialak ez ezik, enpresako arduradunek ere sinatu beharko dituzte erregistro/txosten dokumentu ofizialak. Intzidentziak informatikoki erregistratu beharko dira horretarako presatutako erregistro ofizialetan, eta, ondoren, bi aldeek sinatutako dokumentuak dagokion karpetan artxibatuko dira. Sinatutako dokumentuaren kopia emango zaie enpresakoei.

Erregistro/txosten dokumentuak erabiliko dira, halaber, enpresarekin batera izendatutako arduradunei intzidentziak komunikatzeko.

Erregistroa/txostenak AZOk ikuskapena egiten duen aldi bakoitzean bete behar dira, finkatutako gutxienekoak gainditzen badira ere. Inongo zalantzarik gabe, irizpide teknikoek hala adierazten badute, gertatuko da jarduera batzuetan gutxienekoa baino askoz sarriago egin beharko dela ikuskapena. Halakoetan ere, jarduerak behar bezala erregistratuta geratu beharko du.

Kapitulu batzuek xedatzen dute, intzidentzia jakin batzuk gertatuz gero, gertakariok ikuskapen-akta batean (3. Eranskineko erredua) jaso beharko direla. Hala eta guztiz ere, eta espresuki adierazi ez arren, AZOk aukera izango du ikuskapen-akta jasotzeko, baldin eta egoki ikusten badu, bere ustez larriak diren gertakizunak sumatu dituelako.

Intzidentziak jasotzen dituzten erregistroa/txostena guztiak zein idatzita jaso direnak eta ikuskapen-aktak AZ motako karpitetan jaso beharko dira, eta 2 urtez gorde, gutxienez.



5. ERANSKINAK

Kapitulu bakoitzean, informazio gehigarria aurkezten da eranskinen bidez.

Kapitulu honetan ondoko eranskin hauek gehitu ditugu:

I. eranskina: Erregistroa/txostenen itemen eta Espezie Handien Hiltegietako Instrukzio Teknikoaren arteko korrespondentzia.

II. eranskina: Kontrol-lanaren datuak biltzeko fitxa soila.

III. eranskina: Ikuskapen-Aktaren erredua.

I. ERANSKINA

ERREGISTROA/TXOSTENA FITXAREN ETA «ESPEZIE HANDIEN HILTEGIA» INSTRUKZIO TEKNIKOAN HORRI BURUZ IDATZITAKO ATALEN ARTEKO KORRESPONDENTZIA

A. KAPITULUA: ELIKA-KATEARI BURUZKO INFORMAZIOA

Intzidentzia-kodea	Definizioa	Hiltegietako instrukzio teknikoarekiko korrespondentzia-kodea
A.1.1.	Abereen jatorria	324 / 325
A.1.2.	Hiltegira eramateko garraioa	325
A.1.3.	Haragia ekoizteko sistema	325 / 326 / 327
A.1.4.	Hondakinen kontrola (animalia susmagarriak)	EAEko espezie handien hiltegietako kontrol ofizialaren prozedura normalizatua (A-2 eranskina)

B. KAPITULUA: ABEREAREN ONGIZATEA

Intzidentzia-kodea	Definizioa	Hiltegietako instrukzio teknikoarekiko korrespondentzia-kodea
B.1.1.	Abereak maneiatzea: orokorrean, deskargan eta lekura eramatean	267
		340 / 341 / 342 / 343 / 344 / 345 / 346 / 347 / 348 / 349 / 1051
		215 / 216
B.1.2.	Ukuiluko abereak	267 / 268 / 269
		350 / 351 / 352 / 353 / 354
		217 / 218
B.1.3.	ZORABIATU beharreko abereak	270 / 271 / 272
		355 / 356 / 357 / 358 / 359 / 360 / 361 / 362 / 364 / 1511
		220 / 221 / 222

C. KAPITULUA: ANTE-MORTEM IKUSKAPENA

- > 185 → a.m. ikuskapen-instalazioak
- > 219 → a.m. ikuskapen-instalazioak
- > EAEko espezie handien hiltegietako kontrol ofizialaren prozedura normalizatuaren gidaliburua erabilita bete behar da atal hau.
- > 265 → Aberearen garbitasun-maila
- > 266 → Sakrifizio aurreko atsedena
- > Prozeduraren C-2 eranskina → botika-hondarrak
- > Prozeduraren C-3 eranskina → BEE gaixotasunen sintomak

D. KAPITULUA: POST-MORTEM IKUSKAPENA

- > Post-mortem ikuskapenen erregistroa aplikazio informatikoan jaso behar da. Horretan, gerentziaren inplikazioa NULUA DA, eta ez da beharrezkoa erregistro arrunta egitea, aurreko kasuetan ez bezala.

E. KAPITULUA. ZIGILATZEA-MARKATZEA

Intzidentzia-kodea	Definizioa	Hiltegiako instrukzio teknikoarekiko korrespondentzia-kodea
E.1.1.	Markatze-materiala	332
		239
E.1.2.	Markatzea	330 / 331 / 333 / 334 / 336 / 337 / 338
E.1.3.	Haragi EZ EGOKIAK markatzea	332
E.1.4.	Behin betiko ebazpenaren ondoren markatzea	330
		242

F. KAPITULUA. HIGIENEA SAKRIFIZIOAN

Intzidentzia-kodea	Definizioa		Hiltegiako instrukzio teknikoarekiko korrespondentzia-kodea
F.1.1.	Langileen higiena - Jantziak		84 / 85
			86 / 87 / 88 / 89 / 90 / 91 / 92 / 249 / 250 / 252 / 1465
F.1.2.	Prozesuaren higiena		270
			311 / 312
			148 / 149 / 150 / 151
F.1.3.	Instalazio, lanabes, ontzi berrerabilgarrien higiena		38 / 39 / 40 / 41 / 42 / 43 / 44 / 232
			276 / 277 / 278
			158 / 159 / 161 / 162 / 163
F.1.4.	B.P.M.	Orokorra	279 / 280 / 281 / 282
		Odolustu	274 / 275
			708
			365 / 366 / 367
			225
		Larrutu	283 / 284 / 285 / 286 / 287 / 288
		Irakin	289 / 290 / 291 / 292 / 293
		Tripak kendu	294 / 295 / 296 / 297 / 298 / 299 / 300
		Hotzetan biltegitatu	313 / 314

G. KAPITULUA. AME MATERIALAREN KONTROLA

Intzidentzia-kodea	Definizioa	Hiltegietako instrukzio teknikoarekiko korrespondentzia-kodea
G.1.1.	Ateratzea egiteko lanabesak eta sistemak	254
		271
		278
		302 / 303 / 304 / 305 / 308
G.1.2.	Lanen higieena	301 / 302 / 306 / 307 / 309 / 310
G.1.3.	Tindatu eta desnaturalizatzea	304 / 305 / 306
G.1.4.	Haragiak identifikatzea	319 / 320 / 321
G.1.5.	Erregistroak eguneratuta edukitzea	257
		373

H. KAPITULUA. AZPIPRODUKTU, KONFISKAZIO ETA ITZULKETEN KONTROLA

Intzidentzia-kodea	Definizioa	Hiltegietako instrukzio teknikoarekiko korrespondentzia-kodea
H.1.1.	Ekipoak	115 / 255
H.1.2.	Azpiproduktu eta konfiskazioen maneia	116 / 117 / 118 / 119
		312
H.1.3.	Dokumentazioa	120 / 256 / 258

I. KAPITULUA: ENPRESAREN DOKUMENTU-ERREGISTROAREN KONTROLA

Intzidentzia-kodea	Definizioa	Hiltegietako instrukzio teknikoarekiko korrespondentzia-kodea
I.1.1.	Abereen sarrera-erregistroa	368
I.1.2.	Haragien irteera-erregistroa	369
I.1.3.	Higienaren kontrol erregularren erregistroa	370
I.1.4.	Tenperatura-kontrolaren erregistroa	372
I.1.5.	AME materialaren irteera-erregistroa	373
I.1.6.	Azpiproduktu/konfiskazioen irteera-erregistroa	374
I.1.7.	Uraren kontrolaren erregistroa	375
I.1.8.	DDD planaren erregistroa	376
I.1.9.	L + D planaren erregistroa	377
I.1.10.	Manipulatzailen prestakuntza-planaren erregistroa	378
I.1.11.	Insentsibilizatzeko aparatuen mantentze-planaren erregistroa	1519
I.1.12.	Kamioien garbiketaren erregistroa	1526

J. KAPITULUA: KONTROL OFIZIALAREN EMAITZEN JAKINARAZPENA

EAEko espezie handien hiltegietako kontrol ofizialaren prozedura normalizatuaren gidarliburuak kapitulu honetarako finkatu dituen jarraibideen arabera.

II. ERANSKINA

INFORMAZIOA BILTZEKO FITXA

Lurralde Historikoa:
Eskualdea:
Hiltegia:
Eguna:

GAINBEGIRATZEA	Ordua	Albaitaria
ELIKA-KATEA		
Sakrifikatzeko iritsi diren abereek ez daukate identifikazio indibidualizatua.		
Sakrifikatu beharreko abereen jatorria eta norakoa EZ dago ziurtatuta dokumentazio ofizialean.		
Dokumentazioak osasun publikoa edo abere-osasuna kolokan jar dezakeen zerbaiti buruzko informazioa dauka.		
Enpresak baimena eman du behar bezala identifikatu eta dokumentatuta EZ DAUDEN abereak sakrifikatzeko.		
Hondakinak omen dituzten abereak detektatu dira.		
ANIMALIEN ONGIZATEA		
Langileek behar baino sufrimendu gehiago eragiten diete abereei (deskargan, zorabiatzean, odolustutzean eta abar).		
Ez dira errespetatu albaitariak gaixo edo zaurituta dauden animaliei buruz esandakoak.		
Ez dira betetzen abereak ukuiluan edukitzeko baldintzak (ez daukate urik, edo jatenik, oherik edo garbiketarik).		
Ez dira errespetatu zorabiatu/odolustu/ edo lanean hasteko pautak.		
Zorabiatzeko sistemek ez dute behar bezala funtzionatzen.		
Langileek behar baino sufrimendu gehiago eragiten diete abereei (deskargan, zorabiatzean, odolustutzean eta abar).		
Ez dira errespetatu albaitariak gaixo edo zaurituta dauden animaliei buruz esandakoak.		
Ez dira betetzen abereak ukuiluan edukitzeko baldintzak (ez daukate urik, edo jatenik, oherik edo garbiketarik).		
ANTE-MORTEM IKUSKAPENA		
Sakrifizio-baimen mugagabea.		
Baimen mugatua.		
gaixotasunak edo traumatismo arinak.		
ustiategi susmagarriak.		
traumatismo larriak.		
erradikazio-plan espezifikoak.		

GAINBEGIRATZEA	Ordua	Albaitaria
baimena etenda, erabakia hartu arte.		
animalia susmagarriak.		
Ez egokia sakrifikatu eta gizakiak jateko.		
gaixotasun larriak.		
manipulazioa arriskutsua izan daiteke.		
ante-mortem bajak.		
ZIGILATU ETA MARKATZEA		
Zigilatze lanabesek ez dituzte beharrezko baldintzak betetzen.		
Markatu gabeko edo gaizki markatutako haragiak agertu dira.		
Haragi ez egokiak dagokien markatua gabe agertu dira.		
Kontsumorako egoki direla ziurtatzeko ebazpenaren zain dauden haragi batzuk kontsumorako egokitasuna adierazten duten osasun-zigilua dutela agertu dira.		
HIGIENEA SAKRIFIZIOAN		
Langileek ez daukate jantzi egokirik, edo garbitasuna ez da egokia sakrifizioa behar bezain higienikoa izango dela ziurtatzeko.		
Akatsak sumatu dira sakrifizio-ordenan.		
Instalazio, lanabes, ekipo eta abarren garbitasuna ez da egokia sakrifizioa behar bezain higienikoa izango dela ziurtatzeko.		
Beharrezko ekipo, lanabes eta gailu batzuk ez daude eskura.		
Lan desegokia detektatu da:		
higienean, orokorrean		
odolustean: ez da erabat odolustu edo odol-bilketa antihigienikoa izan da		
larrutzean: lan antihigienikoa		
tripak kentzean: lan antihigienikoa		
Hotza ez da behar bezala aplikatu		
Egosteko ekipoen kontrola ez da behar bezalakoa		
AME MATERIALA		
AME ateratzeko eta biltzeko beharrezko lanabes eta sistema batzuk falta dira		
Manipulazio-okerrak sumatu dira		
Irregularitasunak daude AMEen tindaketa etengabe eta erabatekoan		
Kanalak ez dira behar bezala etiketatu, edota dokumentuak ez dira ondo erregistratu		
Enpresaren sortutako AME eta igorritako AMEen arteko korrelazioa ez da egokia		
AZPIPRODUKTUAK		
Azpiproduktuak higienikoki biltzeko beharrezko ekipoak falta dira		
Manipulazio-okerrak sumatu dira		

GAINBEGIRATZEA	Ordua	Albaitaria
Irregularitasunak sumatu dira azpiproduktu/konfiskazio/itzulketen laguntza-dokumentuetan		
ENPRESAREN DOKUMENTU-ERREGISTROA		
Haragien irteera-erregistroa		
Higienearen kontrolen erregistroa.		
Tenperatura-kontrolaren erregistroa		
Higienearen kontrol erregularren erregistroa.		
AME bidalketen erregistroa		
Azpiproduktuen irteera-erregistroa		
Uraren kontrolaren erregistroak		
DDD kontrol-erregistroak		
L + D planaren erregistroak		
Manipulatzailen prestakuntza-planaren erregistroa		
Insentsibilizazio-erregistroak		
Haragi-kamioien garbiketaren erregistroa		

III. ERANSKINA

IKUSKAPEN-AKTAREN EREDUA

EUSKO JAURLARITZA

OSASUN SAILA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE SANIDAD

Ikuskapen sanitarioa Inspección sanitaria	Aktaren Zk. / Acta Nº 0150002	Baimenaren edo Erregistro Sanitarioaren Zk. Nº autorización o Registro Sanitario
Data / Fecha		
Establezimenduaren izen soziala / Razón Social del establecimiento		
Helbidea / Dirección	Udalerrria / Municipio	Telefona / Teléfono
larduera / Actividad		
Ikuskapenaren jabea edo ordezkari hartzailea / Propietario o representante receptor de la inspección	NAN / DNI	... gisa / En calidad de
Ikuskatzailearen izena eta abizenak / Nombre y apellidos del inspector		

**IKUSKAPENA EGIN ONDOREN, ONDOKO
HAU JAKINARAZTEN DA:**

**UNA VEZ REALIZADA LA INSPECCIÓN
SE CONSTATA LO SIGUIENTE:**

Ale berdea interesatuarentzat / Ejemplar verde para el interesado.
Ale zuria administrazioerako / Ejemplar blanco para la Administración

Interesatuak aktaren edukia eta zuzendu behar dituen akatsak ezagutzen ditu, eta haxe alegatzen du:
El interesado queda informado del contenido del acta y de las anomalías que debe corregir, alegando que:

Eta azaltzen diren leku eta datan, beheko biek aktaren bina ale sinatzen dituzte, interesatua ale batekin gelditzen dela.
Y firma la presente acta junto al inspector, por duplicado, en el lugar y fecha indicado, quedando un ejemplar en su poder.

IKUSKATZAILEAK
EL INSPECTOR

INTERESATUAK
EL INTERESADO

DIRECCIÓN DE SALUD PÚBLICA
Donostia-San Sebastián, 1
01010 VITORIA-GASTEIZ
Tel.: 945 01 92 01 . Fax: 945 01 91 92



Elika-kateari buruzko informazioa

A.1. Gainbegiratzea

- > Abereen jatorria
- > Hiltegira eramateko garraioa
- > Haragia ekoizteko sistema
- > Hondakinak omen dituzten abereak

A.2. Maiztasuna:

- > Abereen jatorria
- > Hiltegira eramateko garraioa
- > Haragia ekoizteko sistema
- > Hondakinak omen dituzten abereak

A.3. Erabakia-jarduna

- > Irregularitasunak identifikazioan
- > Irregularitasunak dokumentazioan
- > Hondakinak omen dituzten abereak

A.4. Erregistro/Txostena

A.5. Eranskinak:

- > A -1: Erregistroa/Txostena
- > A -2: Abere susmagarriei buruzko erabakia, elika-kateari buruzko informazioa kontuan hartuta.



> *elika-kateari buruzko
informazioa*

A KAPITULUA: ELIKA-KATEARI BURUZKO INFORMAZIOA

A.1. GAINBEGIRATZEA

Abereak sakrifikatu aurretik, elika-kateari buruz operadore ekonomikoak emandako informazioa aztertu behar du AZOk. ELIKADURA KALTEGABEA bermea funtsezko printzipioa da, granjatik bertatik hiltegira bitartean, gainera, informazio horren bitartez, ante-mortem eta post-mortem ikuskapenaren berme ere bada. Izan ere, elika-kateari buruzko informazioak hainbat alderdi hartzen ditu kontuan, hala nola, jatorriko ustiategiaren egoera geografikoa eta sanitarioa, abereen osasuna, gaixotasunak, albaitariak emandako botikak, zoonosi eta hondakinen kontroletan emandako emaitzak eta abar.

Enpresaren ardura da garraioan abereekin batera doan dokumentazioa jasotzea eta aztertzea. Dokumentazio horrek bete beharreko betekizunak «Espezie Handien Hiltegiko instrukzio teknikoak» datoz jasota, trazabilitateari buruzko puntuan. Kapitulu honetan lantzen diren puntuen gaineko kontrolak, hortaz, instrukzio horretan xedatzen diren kalitate-ezaugarriak kontuan hartuta egin beharko dira.

A.1.1. Abereen jatorria eta Hiltegira eramateko garraioa

Egiaztatu behar da hornidura-abereak legeak exijitzen duen jatorri-identifikazioarekin jasotzen direla hiltegian.

Egiaztatu behar da abereak beren laguntza-dokumentazio eta guzti jaso direla hiltegian, eta dokumentazio hori bidali den abere-taldeari dagokiola (urgentziak, sakrifizio normala, kanpainak eta abar). Horrez gain, ziurtatu behar da dokumentazioak ez dakarrela osasun publikoa edo abereen osasuna arriskuan jar dezakeen ezeri buruzko informaziorik.

Halaber, sakrifikatzeko jaso diren abereen kasuan, begiratu behar da dokumentazioko datuak bat al datozen identifikazio-markatan agertzen den identifikazio errealarekin.

Egiaztatu behar da, bestalde, akatsik izan bada (identifikazio-marka falta zelako, dokumentazioa falta zelako edo biak ez datozelako bat), hiltegia gai izan dela beharrezko neurriak hartzeko abere horiek ez zitezen sakrifiziora iritsi.

A.1.2. Hondakinak omen dituzten abereak

Baloratuko da abererik edo abere-loterik kontsideratu den botika-hondakinak izatearen susmagarri, kapitulu honen A-2 Eranskinak dioenaren arabera. Susmagarri kontsideratuko dira baldin eta abereen laguntza-dokumentazioa falta bada, dokumentuak behar bezala bete gabe aurkeztu badira, dokumentazioen eta identifikazio-marken artean korrelaziorik ez badago eta abar.

A.2. MAIZTASUNA

Adierazitako gainbegiratze-irizpideak egunero gainbegiratu behar dira. Kasuan kasu, honela:

A.2.1. Abereen jatorria eta Hiltegira eramateko garraioa

Begiratu behar da identifikazio indibidualetatik (krotaletatik) gutxienez %20 behar bezala identifikatuta daudela.

Alabaina, arrisku-taldeetako abereak badira, hau da, kanpainetakoak, laginetarako abereak, urgentziak, gaixoak eta abar, identifikazio indibidualak %100ekoa izan beharko du.

Hiltegiak jaso duen laguntza-dokumentazioaren %100a aztertu behar da.

Aztertu behar da bat datorren identifikazio indibidualen %20 (krotalen) laguntza-dokumentazioarekin.

Alabaina, aurreko puntuko gainbegiratzea egitean ikuskapen-zerbitzuek detektatutako identifikazio okerren kasuan, %100a aztertu beharko da.

A.2.2. Hondakinak omen dituzten abereak

Elika-katea gainbegiratzearen barruan sartzen denez identifikazioa, dokumentazioa, identifikazio-dokumentazioaren arteko korrelazioa eta abar ere egitea (aurreko puntuetan azaldu bezala), maiztasun berdinez egin behar da hondakinak omen dituzten abereen gainbegiratzea ere.

A.3. ERABAKIA-JARDUTEA

A.3.1. Abereen jatorria eta hiltegira eramateko garraioa

Baldin eta sumatu bada hiltegiak baimena eman duela abereren bat edo abere-loteren bat hiltegian sartzeko, nahiz eta irregulartasunak izan identifikazio-markan, dokumentazioan edo identifikazio-dokumentazioaren arteko korrelazioan, edo abereen laguntza-dokumentuek honakoa erakutsi badute:

- > abereen joan-etorriak debekatuta edo mugatuta dauden lekuren batekoak direla,
- > ez direla bete botikak erabiltzeko epeak, edo sakrifikatu ahal izateko eman ezin diren botikak eman zaizkiela,
- > litekeena dela dokumentazio/identifikazio okerra dela-eta, giza osasuna edo abereen osasuna kaltetu dezakeen zerbait gertatu dela,

Halakoetan, honela jokatu beharko da:

Aberea «sakrifikatzeko egokia» dela erabakitzen bada, atzeratu egingo da sakrifizioa, sumatutako irregulartasuna konpontzen den arte. Aberea edo lotea behar bezala identifikatua eta gainerako abereetatik banatuta eduki behar da, sakrifikatzeko orduan okerrik gerta ez dadin. 24 ordu pasatuta arazoa ez bada konpondu, aberea sakrifikatu egingo da beste guztietatik aparte, eta dekomisatu egingo dira kanala, barrukiak, hondakinak eta larrua.

Abereen ongizateari buruzko kontsiderazioek gain hartzen badute, sakrifikatzeko baimena emango da «C. kapitulua. Ante-mortem ikuskapena» testuak dioenaren arabera, eta kanala zein hondakinak atxiki egingo dira, detektatutako irregulartasuna konpondu arte. 24 orduko epea pasatuta, arazoa ez bada oraindik konpondu, abere edo lote horren guztiaren haragia giza kontsumorako ez egoki joko da.

Baldin eta, AZOren iritziz, gorabehera horrek osasun publikoa edo abere-osasuna arriskuan jartzen badu, aparte sakrifikatu beharko dira, ez jartzeko kolokan gizakien edota animalien osasuna.

A.3.2. Haragietan baimentzen ez diren hondarrak omen dituzten abereak

Hondarrak omen dituzten abereak edo loteak detektatzen badira:

- Enpresari jakinaraziko zaio, animaliak behar bezala identifikatu ditzan eta sakrifika ditzan, AZOk agindutako ordenan.
- «Haragietan hondakinak detektatzeko laginak hartzeko prozedurak» agintzen dituen jardunei ekin beharko zaie.

A.4 ERREGISTROA/TXOSTENA

A-1 Eranskinean jaso beharko ditu AZOk bai gainbegiratzeari buruzko datuak eta bai detektatutako intzidentziak. Txosten horren bitartez jakinaraziko dio janari-enpresako arduradunari zein irregulartasun detektatu diren eta, horiek direla-eta, zer egin behar duen, harik eta detektatutako arazoa konpondu arte.

Albaitari ofizialak, halaber, «Hiltegieta osasun-kontrola. Osasun-erregistroa» izeneko datu-basean erregistratu beharko ditu detektatutako irregulartasunok, elika-kateari buruzko informazioari dagokion atalean.

A.5 ERANSKINAK

A-1 Eranskina: Kontrol ofizialaren Erregistro/Txostena. Elikakatea.

A-2 Eranskina: Animalia susmagarrien detekzioa, elika-kateari buruzko informazioaren arabera.



A-1. ELIKA-KATEAREN IKUSKAPENA

Hiltegia:

Teknikari arduraduna:

Ikuskatzea egin zen eguna:

Ordua:

Intzidentzia-kodea	Intzidentzia	Intzidentzia-kopurua	Código Decisión- Actuación	Enpresak ezarri beharreko neurri zuzentzaileak*	Intzidentzia konpondu da BAI/EZ
A.1.1	Sakrifikatzeko jasotako abereek ez dute identifikazio indibidualik		A.3.1.		
A.1.1	Sakrifikatzeko abereen jatorria EZ dago ziurtatuta laguntza-dokumentazio ofizialean		A.3.1		
A.1.1	Dokumentazioak osasun publikoa edo abereen osasuna arriskuan jar dezakeen informazioa dakar		A.3.1		
A.1.2	Hondakinak omen dituzten abereak detektatu dira		A.3.2		

* Intzidentziaren xehetasunak «Oharrak» atalean zehaztu behar dira. «Neurri zuzentzaileak atalean, intzidentzia konpontzeko enpresari agindutako neurriak adierazi behar dira (ezin bada hala egin, «Oharrak» atalean jarri)

Oharrak:	Interesatuaren alegazioak:

Sinadura: Ikuskatzailea

Sinadura: Establezimenduaren arduraduna

ÁLAVA
Santiago, 11 - 010002 VITORIA-GASTEIZ
Tel.: 945 01 71 71 - Fax: 945 01 71 79

BIZKAIA
M^o Díaz de Haro, 58 - 48010 BILBAO
Tel.: 94 403 15 00 - Fax: 94 403 15 98

GIPUZKOA
Avda. de Navarra, 4 - 20013 DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN
Tel.: 943 02 27 00 - Fax: 943 02 27 01

HONDAKINAK OMEN DITUZTEN ABEREI BURUZ HARTU
BEHARREKO ERABAKIA, HILTEGIAN ELIKA-KATEARI BURUZKO
DOKUMENTAZIOA AZTERTU ONDOREN

Dokumentu honetan azalduko ditugun kasuen helburua da jakitea abereak edo abere-lo-teak susmagarri noiz deklaratu behar diren, elika-kateari buruz dakarten dokumentazioa aztertuta.

Hortaz, orain azalduko dugun informazioaren arabera, abereren bat edo loteren bat susmagarritzat hartzen bada, Osasun Sailak urtero prestatzen duen «Haragian hondakinak detektatzeko laginak hartzeko prozedurak» xedatzen duena aplikatu beharko da, bestelako irregulartasunak direla-eta aplikatu beharreko beste neurriez gain.

1. Jabea edo jatorriko ustiatagia:

- > Lehendik botikak erabili dituen edo bere abereek bestetan ere hondakinak izan dituzten begiratu behar da. (ustiatagi susmagarrien zerrenda).
- > Abereka edo loteka hondakinen susmo txikia baino pizten ez badute ere, behin eta berriz gertatu delako susmagarritzat jo daitezkeen ustiatagiak.

2. Abereak hiltegian sartzeko dokumentazioa:

- > Jatorri eta Osasun Gida edo garraio-dokumentua aurkeztu ez duten abereak. Dokumentuetan anomaliak dituzten abereak: identifikaziorik ez dutenak, agian manipulazioak izan dituztenak...
- > Behi-aziendek eduki behar izaten dituzten dokumentu administratibo indibidualak ez aurkeztea.

3. Albaitari klinikoaren ziurtagiria eta ustiapen-liburuaren datuak.

- > Albaitariak emandako botikekin tratatutako abereak albaitari horrek prestatutako ziurtagiria aurkeztu behar dute. Ziurtagiri horretan, honako datuak jaso behar dira: animalari eginiko diagnosia, agindutako botika, eta zenbat denboran hartu duen. Horrez gain, aberearen jabeak aitortu beharko du animalari ez zaiola albaitariak agindutakoaz aparteko beste botikarik eman, eta botika hartzeko epea ere errespetatu dela. Susmagarritzat joko dira abereak edo abere-loteak baldin eta albaitariaren ziurtagiriak jasotzen dituen puntuetako batek edo batzuek zalantza pizten badiote albaitari ofizialari.

4. Abereen identifikazioa:

- > Identifikatu gabeko animaliak
- > Bat ez etortzea dokumentazioan adierazitako identifikazioak eta abereetan daudenak



Aberreen ongizatea

B.1. Gainbegiratzea

- > Maneiatzeko baldintzak
- > Zorabiatzeko baldintzak
- > Ukuiluen baldintzak

B.2. Maiztasuna

- > Maneiatzeko baldintzak
- > Zorabiatzeko baldintzak
- > Ukuiluen baldintzak

B.3. Erabakia-jarduna

- > Maneiatzeko baldintzak
- > Zorabiatzeko baldintzak
- > Ukuiluen baldintzak

B.4. Erregistroa/Txostena

B.5. Eranskinak

- > B-1: Erregistroa/Txostena

> *abereen ongizatea*



B KAPITULUA

ABEREEN ONGIZATEA

B.1. GAINBEGIRATZEA

Hiltegietan, abereen ongizatearen oinarrizko printzipioak agintzen duenez, abereei asaldura, mina edo sufrimendua ebitatu egin behar zaie garraiatzerakoan, ukuiluan jartzerakoan, eustean, zorabiatzean nahiz erailtzean, ebita daitezkeen heinean; betiere, helburu jakin batekin: haragiaren kalitate higienikoa eta osasun publikoa babestea.

Abereen ongizatearen inguruan bete beharreko baldintzak «Espezie Handien Hiltegien Instrukzio Teknikoan» datoz jasota (abereen ongizateari buruzko atalean); hortaz, ondoren zehaztuko ditugun puntuetan egitekoak diren kontrolak, instrukzioan jasotako kalitate-baldintzen arabera egin beharko dira.

B.1.1. Maneiatzeko baldintzak

Egiaztatu behar da abereak deskargatzen, eramaten, ukuiluan jartzean, eusten, zorabiatzen eta odolusten lan egiten duten pertsonak beren lana onberatasunez eta efikaziaz egiten dutela, abere biziak maneiatzeko fase guzti-guztietan, «Espezie Handien Hiltegien Instrukzio Teknikoak» agintzen duen legez.

Gainbegiratu behar da, halaber, AZOk abereren bat berehala sakrifikatzeko erabakitzen badu, sakrifizio hori benetan berehala gauzatuko dela, eta abereen ongizate bermatzeko beharrezko baldintzak betez, gainera.

B.1.2. Ukuiluan dauden abereen baldintzak:

Ziurtatu behar da:

- > badutela ohe nahikoa
- > badutela ura,
- > ukuiluan 12 ordu baino luzeago egon behar duten abereek, badutela jana
- > ukuiluetan ez dagoela simaurrik edo zikinkeriarik pilatuta

B.1.3. Zorabiatzeko baldintzak

Gainbegiratu behar da laneko ekipok behar bezala zainduta daudela, zorabiatzea efikaz izango dela ziurtatzeko moduan.

Gainbegiratu behar da abere guztiak zorabiatuta daudela odolusten hasi aurretik, eta haragitan lanean berehala hasten dela aberea erabat odolustu ondoren.



B.2. MAIZTASUNA

B-1 atalean zehaztutako puntuak egunero gainbegiratu behar dira. Ondoren zehaztu be-zainbat aldiz, eta honela:

B.2.1. Maneiatzeko baldintzak

Egunean behin, begiratu behar da langileek zer-nolako jokabidea duten abereekin prozesuaren fase guztietan (deskarga, ukuiluan jarri, eramatea, etab.).

Ziurtatu behar da, AZOk agintzen dituen berehalako sakrifizio GUZTIAK berehala gauzatzen direla.

B.2.2. Ukuiluetan dauden abereen baldintzak

Egunean behin, begiratu behar da abereek badutela ohea, jana eta ura eta beren lekua garbi dagoela.

B.2.3. Zorabiatzeko baldintzak

Egunean behin, egunaren hasieran, begiratu behar da zorabiatzeko ekipoak behar bezala daudela, eta ondo dabilzala.

Odolustu aurretik, abereak erabat zorabiatuta daudela: egunean bitan, gainbegiratzetanda bakoitzean sakrifikatzen diren abereen %10 aztertuta, gutxienez.

B.3. ERABAKIA-JARDUNA

B.3.1. Maneiatzeko baldintzak

Hiltegiak ez baditu abereak babesteko arauak betetzen edozein fasetan, baina AZOk intzidentzia ez badu larritzat hartzen, hiltegiko arduradunari jakinaraziko dio zer detektatu duen, beharrezko neurriak hartzeko eta berriz ez gertatzeko.

Alderantziz, AZOk gertakaria larritzat hartzen badu, egoki iruditzen zaizkion neurriak hartzeko aukera izango du, esate baterako, animaliarik ez eramatea sakrifizioa, intzidentzia konpontzen den arte.

B.3.2. Ukuiluetan dauden abereen baldintzak

Baldin eta detektatzen bada ukuiluan ura, jana, ohea edo garbitasuna falta dutela abereek, hiltegiko arduradunari jakinaraziko zaio, arazoa berehalakoan konpontzeko.

B.3.3. Zorabiatzeko baldintzak

Hiltegiak ez baditu abereak babesteko arauak betetzen edozein fasetan, eta AZOk ez-betetze hori larritzat jotzen badu, egoki iruditzen zaizkion erabakiak hartzeko aukera izango du, larritasunaren arabera, eta berehala eskatuko dio empresari zuzentzeko hilketarekin jarraitu baino lehen.



Hauek dira zorabiatzeko baldintzak ez betetzearen kasu larrienak:

- > Abereak ez dira zorabiatzen
- > Haragitan lanean hasten dira aberea erabat odolustuta egon gabe
- > Zorabiatze-sistemek ez dute ondo funtzionatzen (abereek orro egiten dute, buru-hezurra hausten zaie, petekiak eragiten zaizkie kanaletan eta abar)
- > Larritzat hartu ez diren irregulartasunak behin eta berriz errepikatzea.

B.4. ERREGISTROA/TXOSTENA

Datu-basean jaso beharko ditu albaitari ofizialak abereen ongizatea dela-eta sumatu dituen irregulartasun edota intzidentzia guztiak.

Horrez gain, enpresako operadoreari jakinarazi beharko dizkio detektatutako irregulartasunak (B-1 Eranskineko informazio-erregistroaren eredua erabiliz), bai eta arazoa konpondu bitartean, albaitariak enpresari zer neurri ezarri dizkion e.

B.5. ERANSKINAK

B-1 Eranskina: Kontrol ofizialaren Erregistroa/Txostena. Abereen ongizatea



B-1. ABEREEN ONGIZATEA

Hiltegia:

Teknikari arduraduna:

Ikuskatzea egin zen eguna:

Ordua:

Intzidentzia-kodea	Intzidentzia	Intzidentzia-kopurua	Código Decisión-Actuación	Enpresak ezarri beharreko neurri zuzentzaileak*	Intzidentzia konponduta BAI/EZ
B.1.1	Langileek gehiegizko sufrimendua eragiten diete abereei (deskargan, eramatean, zorabiatzean, odolustutzean, etab.)		B.3.1.		
B.1.1	Ez dira errespetatu albaitariak emandako aginduak abere gaixoak, zaurituak eta abar sakrifikatzeko.		B.3.1.		
B.1.2	Ez dira errespetatzen abereak ukuiluan edukitzeko beharrezko baldintzak (ura, jana, ohea, garbitasuna)		B.3.2.		
B.1.3	Ez dira errespetatu zorabiatu/odol-hustu/lanean hasteko pautak		B.3.3.		
B.1.3	Zorabiatzeko sistemak ez dute behar bezalako efikaziaz funtzionatzen		B.3.3.		

* Enpresari agindutako neurri zuzentzaileak jarri behar dira atal honetan (ezin bada hala egin, «Oharrak» atalean jarri)

Oharrak:	Interesatuaren alegazioak:

Sinadura: Ikuskatzailea

Sinadura: Establezimenduaren arduraduna

ÁLAVA
Santiago, 11 - 010002 VITORIA-GASTEIZ
Tel.: 945 01 71 71 - Fax: 945 01 71 79BIZKAIA
M^a Díaz de Haro, 58 - 48010 BILBAO
Tel.: 94 403 15 00 - Fax: 94 403 15 98GIPUZKOA
Avda. de Navarra, 4 - 20013 DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN
Tel.: 943 02 27 00 - Fax: 943 02 27 01



Ante-mortem ikuskapena

C.1. Ikuskapena

- > Orokorrean
- > Ikuskatze-lana

C.2. Maiztasuna

C.3. Erabakia-jarduna

- > Sakrifizio-baimen mugagabea
- > Sakrifizio-baimen mugatua
- > Sakrifikatzeko ez-egokia

C.4. Erregistroa/Txostena

C.5. Eranskinak:

- > C-1: Erregistroa/Txostena
- > C-2: Abere susmagarriak detektatzea
- > C-3: 1/2001 instrukzioa

> *ante-mortem ikuskapena*



C KAPITULUA

ANTE-MORTEM IKUSKAPENA

C.1. ANTE-MORTEM IKUSKAPENA

C.1.1. Orokorrean

Ante-mortem ikuskapena (a.m.) sistematikoki egin behar da, elika-kateari buruzko informazio guztiaren jakinean egonda eta abereari buruzko datuak ezagututa: adina, produkzio-mota, ustiapen-mota eta abar.

Albaitari ofizialak a.m. ikuskapen are zehatzagoa behar duten abereak banantzea eskatuko du beharreko ikusten badu. Ikuskatze indibidualizatua leku egokian egin behar da, Espezie Handien Hiltegietako instrukzio teknikoak agintzen dituen baldintza guztiak betetzen dituen leku egokian.

Albaitariari dagokio egiaztatzea badaudela hiltegian sistema egokiak bermatzeko abererik ez dela sakrifikatuko a.m. ikuskapena egin gabe.

Halaber, albaitari ofizialari dagokio a.m. ikuskapenean apartatu direnak edo susmagarri edo premiazko direnak markatzen direla ziurtatzea, sakrifizio-katera ez daitezen iritsi (espresuki baimentzen ez bada, behintzat).

C.1.2. Ikuskatze-lana

Kontuan hartuta, abereen ongizatea dagokion atalean jasota dagoela, kapitulu honetan, a.m. ikuskapenak gutxienez, honako atalak hartu beharko ditu aintzat:

> Behatu:

- > Garbitasuna. Abere bat edo abere-lote bat zikinegi dagoela joko da, baldin eta horiekin lan egiteak gainerako haragiei kalte egiteko arriskua badago.
- > Jokabide-arazoak, bai bakarka bai taldean

> Bilatu:

- > Neke- edo kitzikapen-zeinuak
- > Gaixotasun- edo traumatismo-sintomak, bereziki erreparatu Epizootien Nazioarteko Bulegoko A edo B zerrendan agertzen diren gaixotasuna eta zoonosiak.
- > Botika-tratamenduen, inplanteen, ziztaden eta abarren zeinuak. Zeinu horiek bilatzeko, C2 Eranskineko galdetegia erabiliko da.
- > Garraioan hartutako mina.
- > Gizakien nahiz abereen osasunerako txarra izan daitekeen bestelako edozein gauza.

C.2. MAIZTASUNA:

Abere guztiak ikuskatu behar dira sakrifikatu aurretik. Ikuskatze hori hiltegira iritsi eta hurrengo 24 orduen barruan egin behar da, eta sakrifikatzeko 24 ordu falta baino lehen. Nolanahi, AZOk aukera du a.m. ikuskapenak beste edozein unetan egiteko ere.

C.3. ERABAKIA-JARDUNA

Ikuskatzea egin ondoren, ebazpena eman behar da. Ebazpena hiru hauetatik bat izango da:

C.3.1. Sakrifizio-baimen mugagabea:

Halako baimena emango da, baldin eta a.m. ikuskapenean ikusi bada:

- > Animalia nahikoa atsedean hartuta dagoela. Ez du asaldura edo nekea erakusten duten zeinurik.
- > Ez dauka giza kontsumorako ez-egoki bihurtzen duten gaixotasun-sintoma klinikorik.
- > Ez du lan berezirik behar izango lanean aritzean edo p.m. ikuskapena egiterakoan.
- > Ez dagoela zikinegi (zikinegi egongo da baldin eta lanean hastean gainerako haragientzat kutsagarri izan badaiteke).

C.3.2. Sakrifizio-baimen mugatua:

Kasu hauetan:

- > Gaixotasun edo traumatismo arinak baditu, baina ezin direnak transmititu ez gizakiei ez abereei eta inola ere giza kontsumorako desegoki izan daitekeen haragia emango ez duena.
Gaixotasun arinen adibideak: herrena, disneak, herniak, traumatismo txikiak eta abar.
Enpresari jakinaraziko zaio zein aberek duten halakorik, behar bezala marka ditzaten, p.m. ikuskapenean kontuan hartzeko.
- > PNIR-aren barruan sartzen diren ustiategi susmagarrietatik datozenak.
Enpresari jakinaraziko zaio, behar bezala marka ditzaten, immobilizatzeko eta post-mortem ikuskapenean laginak biltzeko.
- > Traumatismo larriak badituzte
Berehala sakrifikatuko dira traumatismo larriak dituzten abereak. Sakrifizioa «in situ» egin daiteke, abereari gehiegizko sufrimendua ebitatzeko.
- > Gizakiari kutsatzeko moduko edo giza kontsumorako haragi desegokiak emateko moduko gaixotasunak izan ditzaketen abere susmagarriak.



Hiltegi sanitarioan edo sakrifizioaren amaieran hil behar dira. Gaixotasun larrien adibideak: sukarra duten abereak, abzesu asko dituztenak, tumorazioak dituztenak, etab.

- > Agintaritza eskudunak agindutako erradikazio-plan espezifikoaren barruan sakrifikatzeak direnak.

Sakrifizio-katearen amaieran hil beharko dira, edo, aparteko arrazoiak direla-eta, ezin bada, gainerako abereentzat edo haragiarentzat kutsatze-arriskua ahal den txikiena izateko moduan.

- > Sakrifizioa etenda dutenak, erabakia hartu arte (nekea, portaera anormala, identifikazioan akatsak eta abar dituztenak).

Abereok isolatu egin behar dira, eta behar bezala identifikatu, al baitari-ikuskatzaileak zer egin erabakitzen duen arte. Honako kasu hauetan, sakrifizioa atzeratu egingo da:

- > Identifikazio-akatsak dituzten animaliak. (Elika-kateari buruzko informazioa kapituluaz aztertzen da hori).
- > Asaldura- edo neke-zeinuak dituzten animaliak: ikuskatzaileak esanda bezala, enpresak abereei atsedeen emateko neurriak hartu eta sakrifikatze egoki jartzen diren arte («Espezie Handien Hiltegiak» instrukzio teknikoak higieneari buruz lantzen duen atala)
- > Zikinegi dauden animaliak: al baitari ofizialak ziur egon behar du jaki-enpresako operadoreak ondo betetzen duela larrua edo artilea duten animaliak zikin ez egoteko obligazioa, betiere, zikinkeriak ez dezan haragia kutsatu sakrifizioa egitean. Aurretik garbitu egin beharko dira abereok giza kontsumorako sakrifikatuko badira («Espezie Handien Hiltegiak» instrukzio teknikoak higieneari buruz lantzen duen atala).

- > Jokaera-asaldurak dituzten animaliak. Kasu horretan, ikuskapen zehatzagoa egin beharko da benetan sakrifikatzeko abere edo lote egokia dela ikusi arte.
- > Gizakiaren edo abereen osasunerako kaltegarri izan daitekeen gaixotasuna edo osasun-egoera txarra izateaz susmagarri diren animaliak. Abereoi a.m. ikuskapen zehatza egingo zaie, diagnostikoa finkatzeko. Gainera, albaitari ofizialaren aukeran geratuko da laginak eskatzea edo laborategiko analisiak eskatzea, pm ikuskapenaren osagarri. Beharrezkoa balitz, bakoitza bere aldetik sakrifikatuko dira abereak, sakrifizio-prozesu normala bukatzean. Betiere, gainerako haragia ez kutsatzeko hartu beharreko neurri guztiak hartu beharko dira.
- > Haragian hondakinak uzten dituzten sustantziak eman zaizkiela salatzen duten zeinuak dituzten animaliak. C-2 Eranskina.

C.3.3. Giza kontsumorako sakrifiziorako ez egokia:

Ebazpenak adierazten badu aberea sakrifiziorako ez-egokia dela, albaitariak sakrifizio hutsa aginduko du, hau da, haragia landu gabe, eta berehala eraman dezatela Abere Osasunerako Zerbitzura, hiltegiko arduradunak abisua emanda, han arduratuko baitira hilotza jaso eta haragia desegiteaz.

Ebazpen honetan sartzen dira:

- > Gizakiei nahiz animaliei transmititzen zaizkien gaixotasunak dituzten animaliak, eta hil zorian dauden animaliak, kakektikoak, edota gaixotasun sistemikoaren sintomak dituztenak.
- > Manipulatuz gero, pertsona nahiz produktuentzat arriskutsu izan daitezkeen animaliak,
- > ante-mortem baja izan direnak,
- > BEE-en sintomatologiarekin bat datozen sintomak dituzten animaliak. Kasu horretan, premiazko sakrifizioei buruzko 1/2001 instrukzioa aplikatuko da. C-3 Eranskina.

C.4 ERREGISTROA/TXOSTENA

Albaitari ofizialak datu-basean erregistratu beharko ditu a.m. ikuskaritzaren intzidentzia guztiak.

Gainera, operadoreari ere eman beharko dio horien berri, C-1 Eranskinean datorren erregistroa/txostena ereduaren bitartez.

C.5 ERANSKINAK

C-1 Eranskina: Kontrol ofizialaren Erregistroa/Txostena. Ante-mortem ikuskapena.

C-2 Eranskina: Hondakinak omen dituzten abereen detekzioa a.m. ikuskapenean.

C-3 Eranskina: 1/2001 instrukzioa.



C-1. ANTE-MORTEM IKUSPENA

Hiltegia:

Teknikari arduraduna:

Ikuskatzea egin zen eguna:

Ordua:

Intzidentzia-kodea	Intzidentzia	Intzidentzia-kopurua Aberearen, lotearen identifikazioa	Jarduna / Erabakkodea
C.1.1	Sakrifizio-baimen mugagabea		C.3.1
C.1.1	Sakrifizio-baimen mugatua > Gaixotasun edo traumatismo arinak > Ustiategi susmagarriak > Traumatismo larriak > Erradikazio-plan espezifikoa > Etenda, erabakia hartu arte > Abere susmagarriak		C.3.2
C.1.1	Giza kontsumorako sakrifiziorako ez-egokia > Gaixotasun larriak > Manipulatuz gero, arriskutsuak > ante-mortem bajak > BEEren sintomak		C.3.1

* Enpresari agindutako neurri zuzentzaileak jarri behar dira. Argi adierazi atal honetan, ahal bada, edo Oharrak atalean, ze neurri jarri diren, eta zein abere, lote, partida edo abarrentzat jarri diren.

Oharrak:	Interesatuaren alegazioak:

Sinadura: Ikuskatzailea

Sinadura: Establezimenduaren arduraduna

ÁLAVA
Santiago, 11 - 010002 VITORIA-GASTEIZ
Tel.: 945 01 71 71 - Fax: 945 01 71 79

BIZKAIA
M^a Díaz de Haro, 58 - 48010 BILBAO
Tel.: 94 403 15 00 - Fax: 94 403 15 98

GIPUZKOA
Avda. de Navarra, 4 - 20013 DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN
Tel.: 943 02 27 00 - Fax: 943 02 27 01

HONDAKINAK OMEN DITUZTEN ABEREAK DETEKTATZEA HILTEGIAN, ANTE MORTEM IKUSKAPENEAN

Eranskin honetan azalduko dugun sintoma-zerrendaren helburua da detektatzea animaliarik edo loterik ba ote den debekatutako sustantziekin edo baimendutakoak izan arren gehienezko muga gainditu duten sustantziekin tratatuta, a.m. ikuskapenean ageri dituzten sintomak aztertuta.

Kasu bakoitza baloratuko du albaitari ofizialak, a.m. ikuskapenean detektatutako sintomak kontuan hartuta, p.m. ikuskapenak erakutsi dituen lesioak aztertuta, eta partida berdinean susmagarritzat jo diren abere-kopuruari erreparatuta.

Hortaz, abereren bat susmagarritzat hartzen bada, dagokion prozedura jarriko da abian, «Hondakinak ikertzeko Planak» agintzen duena betez. Abereren bat edo lote bat dudarik gabe susmagarritzat jotzeko, honako irizpideak hartuko ditu kontuan albaitariak:

Susmo txikia: normaltasunaren desbiazio txikia, dentsitatea txikia delako edo indibiduo oso gutxitan agertu delako. Gerta liteke abere-lote batean ez-intentsutzat jotako karaktere bat baino gehiago agertzea (zuzeneko susmokoaz apartekoak), partidako bi animalia baino gehiagotan, eta hala ere ez jotzea susmagarritzat.

Susmo ertaina: abereek karaktere nabarmenagoak agertzen dituzte, edo animalia gehiago daude karaktere horiek ageri dituztenak (partidako bi baino gehiago). Orokorrean, loteko bi abere baino gehiagotan bi edo hiru karaktere susmagarri agertzea, nahikoa da partida susmagarritzat jotzeko.

Susmo handia: egoera kritikoa da. «Oso susmagarri» kategorian sartzen diren sintomak agertzen dituzte abereek.

Karaktereen deskribapena:

1. Animalien morfologia: genetikagatik, dagokiena baino egitura muskular sendoagoa izatea. Aztertu behar da zer gradu duen anomalia horrek eta loteko zer abere-proportziok duen.
2. Lotearen homogenitatea: animaliek oso morfologia antzekoa izatea; batez ere, arraza ezberdinak biltzen dituzten lotetan.
3. Ukuiluen itxura: kaka oso likidoak, diuresis handia. Edo, alderantziz, ukuilu oso lehorrak.
4. Abereen portaera: gehiegizko urduritasuna, takipnea edo, alderantziz, abere lasaiegia, estimuluekin erantzuten ez dutenak. Portaera horren gradua baloratuko da, bai eta partidako zein abere-proportziok duen ere.
5. Ligamendu erlaxatuak: Lerro dortso-lunbarra konkaboa, bizkar-hezurreko ligamenduak erlaxatuta egoteagatik. Buztanaren sorrera-puntua eroria. Erlaxazio-gradua baloratuko da, bai eta partidako zein abere-proportziok duen ere.

6. Edemak: Gorputzeko zenbait ataletan, abdomenean eta abar. Gradua baloratuko da, bai eta partidako zein abere-proportziok duen ere.
7. Mugimenduak: Kostata ibiltzen dira (balantzaka) edo kosta egiten zaie altxatzea. Gradua baloratuko da, bai eta partidako zein abere-proportziok duen ere.
8. Traumatismoak: Gorputz-adarretan ageri direnak, eta hausturak. Traumatismo arinak badira, esaterako, kontusioak, garraiatzean gertatutakoak izan daitezkeenak, zenbat animaliak duten baloratuko da, dagokion kategoria horren arabera emateko. Hausturak badira, beti izango dira oso susmagarri.
9. Diarrea hemorragikoak: Karaktere hori beti da oso susmagarri.
10. Azaleko lesioak: Kontuan hartu beharko da lotean abere askok baldin badute azaleko lesioren bat: alopezia, dermatomikosis...
11. Portaera sexuala: Kitzikadura sexual handia erakusten duten abereak, bereziki gazteak, eta elkar estaltzen dabiltzanak. Gradua baloratuko da, bai eta partidako zein abere-proportziok duen ere.
12. Karaktere sexualak: Karaktere sexual oso garatuak edo atrofiatuak: barrabil txikiak, ugatzak goizegi haztea, hipertrofia bulbarra, muki zurixka baginan... gradua baloratuko da, bai eta partidako zein abere-proportziok duen ere.
13. Goizegi sakrifikatutako animaliak. Abeltzainarentzat, hiltegiarentzat, eremu geografikoarentzat normala den pisua hartu baino lehen sakrifikatutakoak.
14. Inplante-arrastoak edo injekzioak seinalatzen dituzten karaktereak. Arrasto edo karaktereak nabarmenak badira, nahiz eta partidako abere bakarrak eduki, oso susmagarritzat jo behar da; are gehiago abere batek baino gehiagok badauzkate.

III ERANSKINA

1/2001 INSTRUKZIOA. Eguna: 2001eko martxoak 21

Norentzat: Osasun Publikoko Lurralde Zuzendariordetzak, EAEko hiltegi-tako al-baitari ofizialak

Abereen encefalopatia espongiformea gaur egun epidemia denez, prebentzio-neurri bereziak hartu beharrean gaude, esate baterako, abere jakin batzuei Arriskuko Material Espezifikoa (AME) kendu, proba azkarrak egin eta abar.

Beharrezkoa da, halaber, EAEko hiltegi guztietan irizpide uniformeak finkatu behar dira, BEE gaixotasunarekin bat datozen sintomak dituzten abereak detektatuz gero zer neurri hartu erabakitze-ko, eta urgentziazko abereak jasoz gero zer egin erabakitze-ko.

Horregatik, kontuan hartuta, batetik, 3454/2000 Errege Dekretua, abereen BEE transmi-tigarriak behatu eta kontrolatzeko Programa Integratu Koordinatua finkatu eta arautzen duena, eta, bestetik, 147/1993 Errege Dekretua, haragi freskoa ekoitzi eta komertzializat-zeko baldintza sanitarioak ezartzen dituen-a, honakoa ebatzi da:

INSTRUKZIOA:

1. Abere susmagarriak edota urgentziazko sakrifizio berezitik datozenak, lazaretoan edo ukuiluen nabeko puntu jakin batean immobilizatu behar dira, ukuiluan dauden gaine-rako abereetatik isolatuta.
2. Behien kasuan, EEB dutela susmatuko da baldin eta, 20 hilabetetik gorako abereetan sintoma neurologikoak eta portaerazko sintomak sumatzen badira. Ardi eta ahuntzen kasuan, dardara-gaixotasuna dutela sumatu da baldin eta, 20 hilabetetik gorako abe-reetan sintoma neurologikoak eta portaerazko sintomak sumatzen badira.
3. Sintoma jakin batzuen aurrean, abereak susmagarritzat hartuko dira eta, hortaz, abereen osasuneko al-baitari ofizialei jakinarazi beharko zaie. Hauek dira sintoma horiek:
 - > Portaera aldaketak: urduritasuna, erasokortasuna, oldarkortasuna, beldurra edo ika-ra, hiperestesia, buru-mugimendu anormalak.
 - > Aldaketa lokomotoreak edota posturako aldaketak, ataxia, ez-koordinazioa, postura anormalak, hipermetria, erorketak eta altxatzeko zailtasuna.
 - > Azkurak.
 - > Azaleko lesioak.
 - > Dardarak.
 - > Bestelako sintoma neurologikoak: opistotonoak, tetania edo muskulu-uzkurdurak, zirkulu-mugimenduak, objektu finkoei buruaz bultza egitea eta abar.

- > Urgentziazko sakrifizioetan sumatzen den edozein sintoma, aparte utzita hiltegira iritsi aurreko 24 ordua baino lehenago egindako traumatismoak 24 baino hilabete gutxiagoko animalietan. Urgentziazko sakrifizioek, kasurik gehienetan behintzat, ez dute ematen BEErekin konpatible den sintomatologia dela baztertzeko aukerarik; izan ere, halako sakrifizioetako abereek aipatutako sintoma horietako edozein izaten dute; are gehiago, justifikatuta geratzen da neurria, kontuan hartuta eskura dauden datu epidemiologikoen argira, ikusten bada BSE positiboa eman duten abereek harreman estua dutela urgentziazko sakrifiziotik datozen abereekin.»
- 4. Abereen osasunean eskumena duten organoei jakinaraziko zaie baldin eta hiltegia a.m. ikuskapenean susmagarri izan den abereren bat badago.
- 5. Albaitari zerbitzu eskudunak aberea aztertu ondoren, baimendutako instalazio batera eramango da aberea, han sakrifikatzeko. Alabaina, albaitari zerbitzu eskudunak adieraziko balu animalia bizirik ezin dela dagokion sakrifizio-instalaziora eraman, in situ sakrifikatuko da, eta gero eramango da. Hortaz, sakrifizioa aberea dagoen lekuan bertan egin daiteke, edozein dela ere, baina baldintza egokietan, eta sakrifizio normalaren lerroan sartu gabe.
- 6. Argi geratu behar du portaerako asaldurak edo urduritasuna agertzen duten abereak ezin direla hiltegiara iritsi, eta instalazioetara ustekabez besterik ezin direla iritsi, hiltetik AZOaren kontrolatik kanpo geratzen den arrazoiren bategatik. Aberearen laguntza-dokumentazio guztiak albaitariaren eskura, eta hor agertu beharko da ustiatetik arduradunaren nahiz albaitari arduradunaren deklarazioa, non adierazten duten hasiera batean ez zegoela sintomatologia nerbiosorik, eta horregatik bidali zela aberea hiltetik. Izan ere, bestela, animalien garraioari buruzko legedia ez lukete beteko.



Post-mortem ikuskapena

D.1. Ikuskapena

- > Orokorrean
- > Ikuskatze-lana

D.2. Maiztasuna

D.3. Erabakia-jarduna

- > Kontsumitzeko egokia
- > Kontsumitzeko ez-egokia
- > Hein batean ez-egokia
- > Baldintzekin egokia

D.4. Erregistroa/Txostena

D.5. Eranskina:

- > D-1: Hondakinak omen dituzten abereak detektatzea post-mortem ikuskapenean



> *post-mortem ikuskapena*

D KAPITULUA

POST-MORTEM IKUSKAPENA

D.1. POST-MORTEM IKUSKAPENA

D.1.1. Orokorrean

Post-mortem ikuskapena sistematikoki egin behar da, eskura dagoen informazio guztia aztertuta (elikadura, ante-mortem, zorabioa eta odolustutzea), eta abereari buruzko datu guztiak aztertuta, hala nola: sexua, adina, arraza eta ekoizpen-mota, esnetarako edo haragitarako den, etab.

Albaitari ofizialak exijitu behar du aberearen burua, organoak eta barrukiak edo p.m. ikuskapena behar duen kanalaren beste edozein zati argi eta garbi erlazionatzea dagokion kanalararekin, ikuskapena bukatu arte.

Solipedo etxetiarren, 6 hilabete baino gehiagoko behien eta 4 aste baino gehiagoko txerri etxetiarren kanalak honela aurkeztu behar dira p.m. ikuskapena egiteko: luzetara erdibituta, bizkar-hezuraren parean.

Buruak honela aurkeztu behar dira: garbituta eta hezurak kenduta, ganglio linfatikoak, murtxikatze-muskuluak, ahoa eta mihia behar bezala ikusteko eta lantzeko moduan.

Giltzurrunak: koipe-estalkia kenduta eta dekapsulatuta.

Ikuskatzaileak ez du baimenik emango inongo zatirik kentzea, organo edo barrukia izan, ebazpena eman arte; ez bada ikuskatu egin behar den zatiren bat.

Ikuskatzaileak ez du utziko inork gaixotasun-seinalerik, edo kanal edo organoren bateko akatsik atera, aldatu edo desegin dezan, harik eta ikuskapena bukatu eta ebazpena ematen duen arte.

Ikuskapena egitean, beharrezko neurri guztiak hartu behar dira, haragia kutsatzeko arriskua ahalik eta txikiena izan dadin palpazioa, ebakia edo intzisia egiteko momentuan. Ebakia egitea beharrezko denean, kutsatzeko arriskua erabat ebitatzeko moduan egin behar da: ezin da haragia, lokalak, ekipoa edo pertsonala inola ere kutsatu.

Ikuskatu den kanal edo barrukiren bat susmagarria bada, eta ezin badira erabat ziur giza kontsumorako egokitzen jo, are ikuskapen zehatzagoa egingo zaie, ebazpena eman ahal izateko. Horretarako, identifikatu eta gainerako haragietatik bereiziko dira, eta ikuskatzailearen kontrolpean utziko dira, hari eta jateko egokitzen edo ez-egokitzen jotzeko behar adina emaitza eztaba daezin bildu arte.

Abere guztien kasuan, baldin eta:

- > gaixotasun jeneralizatua susmatzen bazaio,
- > giza kontsumorako sakrifikatu behar badira, ganadua saneatzeko kanpainaren baten ondorioz (tuberkulosia, bruzelosia, leukosia eta abarrengatik)
- > urgentziazko sakrifizioa egin behar bazaie,
- > bestelako zoonosiren bat baduten susmoa badago

kanal, buru zein barrukietako ganglio linfatiko nagusiak sekzionatu eta atera behar dira (bilatu ikuskapen zehatzaren, xehakatuaren definizioa).

Enpresako katearen abiadurak eta baldintza nahiz instalazioen mantentze-egoerak berak (argitasuna, esekitze- eta manipulazio-sistemak, identifikazioa, erretentzioa eta immobilizazioa...) bermatu behar dute p.m. ikuskapen-lana segurtasunez egin daitekeela.

D.1.2. Ikuskapen-lana

Sakrifizioa burutu bezain pronto, aberearen zati denei, odola barne, p.m. ikuskapena egin behar zaie.

Honela egin behar da p.m. ikuskapena:

- > Begiz aztertu abere sakrifikatua eta organoak.
- > Arauek agintzen dutenaren arabera derrigor aztertu beharreko organoei ebakiak egin, eta, al baitariak beharrezko ikusten badu, baita umetokiari ere.
- > Anomaliarik baden begiratu, kontsistentzia, kolorean, usainean eta, kasuan kasu, baita zaporean ere.
- > Ebazpena hartzeko lagungarri izango diren laginak hartu eta laborategiko azterketak egin.

Bereziki ahalegindu behar da zoonosia, Epizootien Nazioarteko Bulegoaren A zerrendako gaixotasunak eta derrigor jakinarazi behar diren bestelako gaixotasunak detektatzen.

Bestelako azterketa osagarria ere egin beharko da (hondar eta kanalaren zati batzuk palpatu eta ebakiak egin, eta laborategiko entseguak ere egin) beharrezkoak bada:

- > Behin betiko diagnosia egiteko,
- > Abereen gaixotasunen bat ageri den argitzeko,
- > Gehiegizko hondakin kimikoak edo irizpide mikrobiologikoen ez-betetzea detektatzeko,
- > Haragia kontsumorako ez-egoki bihurtzen duten faktoreak detektatzeko, edo haragi-kontsumoari mugak jartzen dizkieten faktoreak detektatzeko.

Espezie etxetiarren arabera, honako hauek dira p.m. ikuskapenean abereek bete behar dituzten baldintza espezifikoak:

- 6 aste baino gutxiago duten behiak

Kanalak eta hondarrak aztertzeko, honako p.m. ikuskapen-prozedura aplikatu behar da:

- a) Begiz aztertu burua eta eztarria; ganglio linfatiko retrofaringeoei (Lnn. retropharyngeales) ebakia egin eta aztertu; ahoa eta haginak aztertu; mihia palpatu, amigdalak atera.



- b) Begiz aztertu birikak, trakea eta esofagoa; birikak palpatu; ganglio linfatiko bronkialei eta medianistikoei (Lnn. bifurcaciones, eparterial eta mediastinal) ebakia egin eta aztertu; trakea eta bronkioen adar nagusiak luzetara zabaldu, eta biriken atzeko herenean ebakia egin, ardatz nagusiekiko perpendikular (ez da beharrezkoa izango birikak ez badira jateko).
- c) Begiz aztertu perikardioa eta bihotza; bihotzean luzetara ebakia egin, bentrakuluak zabaltzeko eta tabike interbentrakularra ebakitzeko.
- d) Diafragma begiz aztertu.
- e) Begiz aztertu gibelak eta ganglio linfatiko hepato- eta pankreatikoak (Lnn. portales); gibelak eta bere ganglio linfatikoak palpatu eta, beharrezkoa bada, ebakia egin.
- f) Begiz aztertu traktu gastrointestinala, mesenterioa eta ganglio linfatiko gastriko eta mesenterikoak (Lnn. gastrici, mesenterici, kranial eta kaudal); ganglio linfatiko gastriko eta mesenterikoak palpatu eta, beharrezkoa bada, ebakia egin.
- g) Barea begiz aztertu eta, beharrezkoa bada, palpatu.
- h) Giltzurrunak begiz aztertu eta, beharrezkoa bada, giltzurrunei eta ganglio linfatiko renalei (Lnn. renal) ebakia egin.
- i) Pleura eta peritoneoa begiz aztertu;
- j) Zilbor-hestearen ingurua eta artikulazioak begiz aztertu eta palpatu.

Zalantzarik izanez gero, zilbor-hesteari ebakia egin beharko zaio eta artikulazioak zabaldu; likido sinobiala ere aztertu behar da.

- 6 aste baino gehiago duten behiak

Kanalak eta hondarrak aztertzeko, honako p.m. ikuskapen-prozedura aplikatu behar da:

- a) Begiz aztertu burua eta zintzurra ; ganglio linfatiko submaxilar, retrofaringeo eta parotideoei (Lnn. retropharyngiales, mandibular eta parotide) ebakia egin eta aztertu; kanpoko muskulu meseteroak aztertu, bi ebaki egin behar dira masaile-zurrarekiko paraleloan, eta barruko muskulu meseteroak (barruko pterigoideo), ebakia eginda plano baten luzetara; mihia kendu, ahoa eta haginak begiz ondo aztertzeko moduan; mihia begiz aztertu eta palpatu; amigdalak erauzi.
- b) Trakea eta esofagoa aztertu; birikak begiz aztertu eta palpatu; ganglio linfatiko bronkial eta medianistikoei (Lnn. bifurkazio, eparterial eta mediastinal) ebakia egin eta aztertu; trakea eta bronkioen adar nagusiak luzetara zabaldu, eta biriken atzeko herenean ebakia egin, ardatz nagusiekiko perpendikular (ez da beharrezkoa izango birikak ez badira jateko).
- c) Begiz aztertu perikardioa eta bihotza; bihotzean luzetara ebakia egin, bentrakuluak zabaltzeko eta tabike interbentikularra ebakitzeko.
- d) Diafragma begiz aztertu.
- e) Gibela eta ganglio linfatiko hepatiko eta pankreatikoak (Lnn. portal) begiz aztertu eta palpatu; gibelaren azalera gastrikoari eta lobulu karratuaren oinarriari ebakia egin, konduktu biliarrak aztertzeko.
- f) Begiz aztertu traktu gastrointestinala, mesenterioa eta ganglio linfatiko gastriko eta mesenterikoak (Lnn. gastrici, mesenterici, kranial eta kaudal); ganglio linfatiko gastriko eta mesenterikoak palpatu eta, beharrezkoa bada, ebakia egin.
- g) Barea begiz aztertu eta, beharrezkoa bada, palpatu.
- h) Giltzurrunak begiz aztertu eta, beharrezkoa bada, giltzurrunei eta ganglio linfatiko renalei (Lnn. renales) ebakia egin.
- i) Pleura eta peritoneoa begiz aztertu.
- j) Organo genitalak begiz aztertu.
- k) Errapea eta bere ganglio linfatikoak (Lnn. supramammarii) begiz aztertu eta, beharrezkoa bada, palpatu eta ebakia egin. Errape-erdi bakoitzari ebaki luze eta sakona egingo zaio, seno laktiferoetara artekoa (sinus lactiferes), eta errapearen ganglio linfatikoei ere ebakia egin (ez da beharrezkoa izango ez bada giza kontsumorako).
- l) Tuberkulosiak eragiten dien ganglio eta organoak zehatz-mehatz aztertu, lesio tuberkulosoak detektatzeko.
- ll) Bruzelosia eragiten dien ganglio eta organoak zehatz-mehatz aztertu, bruzelosiaren infekzio larria adierazten duten lesioak detektatzeko.

- **Ardi eta ahuntz etxetiarrak**

Kanalak eta hondarrak aztertzeo, honako p.m. ikuskapen-prozedura aplikatu behar da:

- a) Burua larrutu eta begiz aztertu, eta, dudarik badago, zintzurra , ahoa, mihia eta ganglio linfatiko retrofaringeoak eta parotidoak aztertu; nolanahi, arau zoosantarioek besterik agintzen ez badute, azterketa horiek ez dira beharrezkoak izango baldin eta agintari arduradunak bermatzen badu burua, eta bereziki mihia eta burmuina, ez direla giza kontsumorako izango.
- b) Birikak, trakea eta esofagoa begiz aztertu, birikak eta ganglio linfatiko bronkialak eta medianistikoak (Lnn. bifurcationes, eparterial eta mediastinal) palpatu; zalantzarik badago, ebakia egin beharko da eta organo horiek zein ganglio linfatikoak aztertu.
- c) Perikardioa eta bihotza begiz aztertu; zalantzarik badago, bihotzari ebakia egin eta aztertu egin behar da.
- d) Diafragma begiz aztertu.
- e) Gibela eta ganglio linfatiko hepatico eta pankreatikoak (Lnn. portal) begiz aztertu; gibela eta bere ganglio linfatikoak palpatu, gibelaren azalera gastrikoari ebakia egin, konduktu biliarrak aztertzeo.
- f) Begiz aztertu traktu gastrointestinala, mesenterioa eta ganglio linfatiko gastriko eta mesenterikoak (Lnn. gastrici, mesenterici, cranial eta caudal).
- g) Barea begiz aztertu eta, beharrezkoa bada, palpatu.
- h) Giltzurrunak begiz aztertu, beharrezkoa bada, ebakia egin bai giltzurrunari eta bai ganglio linfatiko renalei (Lnn. renal).
- i) Pleura eta peritoneo begiz aztertu.
- j) Organo genitalak begiz aztertu.
- k) Errapea eta bere ganglio linfatikoak begiz aztertu.
- l) Zilbor-hestearen ingurua eta artikulazioak begiz aztertu eta palpatu animalia gazteen kasuan. Zalantzarik izanez gero, zilbor-hesteari ebakia egin beharko zaio eta artikulazioak zabaldu; likido sinobiala ere aztertu behar da.

- **Solipedo etxetiarrak**

Kanalak eta hondarrak aztertzeo, honako p.m. ikuskapen-prozedura aplikatu behar da:

- a) Burua begiz aztertu, eta, mihia kendu ondoren, zintzurra ere bai; ganglio linfatiko submaxilarrak, retrofaringeoak eta parotidoak (Lnn. retropharyngias, mandibular eta parotidei) palpatu eta, beharrezkoa bada, ebakia egin; mihia kendu, ahoa eta haginak begiz ondo aztertzeo moduan; mihia begiz aztertu eta palpatu; amigdalak erauzi.

- b) Birikak, trakea eta esofagoa begiz aztertu; birikak palpatu; ganglio linfatiko bronkial eta medianistikoak (Lnn. bifurkazio, eparterial eta mediastinal) palpatu eta, beharrezkoa bada, ebakia egin eta aztertu; trakea eta bronkioen adar nagusiak luzetara zabaltu, eta biriken atzeko herenean ebakia egin, ardatz nagusiekiko perpendikular (ez da beharrezkoa izango birikak ez badira jateko).
- c) Perikardioa eta bihotza begiz aztertu; bihotzean ebakia egin luzetara, bentrakuluak zabaltu eta tabike interbentrakularra ebakitzeko.
- d) Diafragma begiz aztertu.
- e) Gihela eta ganglio linfatiko hepatiko eta pankreatikoak (Lnn. portal) begiz aztertu, palpatu eta, beharrezkoa bada, ebakia egin.
- f) Begiz aztertu traktu gastrointestinala, mesenterioa eta ganglio linfatiko gastriko eta mesenterikoak (Lnn. gastrici, mesenterici, kranial eta kaudal); beharrezkoa bada, ganglio linfatiko gastriko eta mesenterikoei ebakiak egin.
- g) Barea begiz aztertu eta, beharrezkoa bada, palpatu.
- h) Giltzurrunak begiz aztertu eta palpatu; beharrezkoa bada, ebakia egin bai giltzurrunari eta bai ganglio linfatiko renalei (Lnn. renal).
- i) Pleura eta peritoneo begiz aztertu.
- j) Hazitarako arren eta behorren organo genitalak begiz aztertu.
- k) Errapeak eta bere ganglio linfatikoak (Lnn. supramammarii) begiz aztertu eta, beharrezkoa bada, ganglio linfatiko supramamarioei ebakiak egin.
- l) Zilbor-hestearen ingurua eta artikulazioak begiz aztertu eta palpatu animalia gazteen kasuan. Zalantzarik izanez gero, zilbor-hesteari ebakia egin beharko zaio eta artikulazioak zabaltu; likido sinobiala ere aztertu behar da.
- m) Zaldi gris edota zuri guztiei azterketa berezia egin behar zaie, melanosia eta melanomatosia detektatzeko. Besoko muskulu eta ganglio linfatikoak (Lnn. subrhomboidi) aztertu behar zaizkie, kartilago eskapularraren azpitik, besoaren lotura askatu ondoren, Giltzurrunak bistan geratu behar dute, eta aztertu egin behar dira baita, erabat ebakiko dituen ebakia eginda.
- n) egokia bada, mukia duten detektatzeko azterketak egin behar zaizkie. Buruan ebakia egin behar da, tarteko planoan, eta sudur-tabikearen ablazioa; ondoren, ondo aztertu mukiak trakean, laringean, sudur-barrunbetan, senoetan eta beren adarretan.

- Txerriak

1. Kanalak eta hondarrak aztertzeko, honako p.m. ikuskapen-prozedura aplikatu behar da:

a) Burua eta zintzurra begiz aztertu; ganglio linfatiko submaxilarrei (Lnn. mandibular) ebakia egin eta aztertu, ahoa, haginak eta mihia begiz aztertu.

b) Birikak, trakea eta esofagoa begiz aztertu; birikak eta ganglio linfatiko bronkial eta medianistikoak (Lnn. bifurkazio, eparterial eta mediastinal) palpatu.

Trakea eta bronkioen adar nagusiak luzetara zabaldu, eta biriken atzeko here-nean ebakia egin, ardatz nagusiekiko perpendikular (ez da beharrezkoa izango birikak ez badira jateko).

c) Perikardioa eta bihotza begiz aztertu; bihotzean ebakia egin luzetara, bentrikuluak zabaldu eta tabike interbentrikularra ebakitzeko.

d) Diafragma begiz aztertu.

e) Gibela eta ganglio linfatiko hepatico eta pankreatikoak (Lnn. portal) begiz aztertu; gibela eta bere ganglio linfatikoak palpatu.

f) Begiz aztertu traktu gastrointestinala, mesenterioa eta ganglio linfatiko gastriko eta mesenterikoak (Lnn. gastrici, mesenterici, kranial eta kaudal); ganglio linfatiko gastriko eta mesenterikoak palpatu eta, beharrezkoa bada, ebakia egin.



- g) Barea begiz aztertu eta, beharrezkoa bada, palpatu.
 - h) Giltzurrunak begiz aztertu eta palpatu; beharrezkoa bada, ebakia egin bai giltzurrunari eta bai ganglio linfatiko renalei (Lnn. renal).
 - i) Pleura eta peritoneoa begiz aztertu.
 - j) Organo genitalak begiz aztertu (zakila izan ezik, dagoeneko bota).
 - k) Errapeak eta bere ganglio linfatikoak (Lnn.supramammarii) begiz aztertu eta, eme helduen kasuan, ganglio linfatiko supramamarioei ebakiak egin.
 - l) Zilbor-hestearen ingurua eta artikulazioak begiz aztertu eta palpatu animalia gazteen kasuan. Zalantzarik izanez gero, zilbor-hesteari ebakia egin beharko zaio eta artikulazioak zabaldu.
2. Eskura duen informazio epidemiologikoa nahiz ustategian lortutako bestelako informazioa kontuan hartuta, albatariak aukera dauka erabakitzeke amaren bu-larretik kendu zirenetik produkzio-sistema integratuen barruan, kontrolatutako ostatu-baldintzetan dauden gizentze-txerriek soilik begizko azterketa pasa behar dutela, 1 puntuan jaso ditugun azterketa batzuetan edo guztietan.

D.2. MAIZTASUNA

Sakrifizioa burutu bezain pronto, kanal guztien eta beren produktuen %100 begiz aztertu beharko dira.

Bestelako ikuskapenak, hala nola, organo eta barrukien palpazioak, ebakiak eta abar, espezie bakoitzarentzat ezarritako maiztasunaren arabera egingo dira, eta ikuskatzaileak egoki ikusten duenean.

D.3. ERABAKIA-JARDUNA

Post-mortem ikuskapena egiteko, beharrezko informazio guztia jaso eta aztertu dugu:

- > Erika-kateari buruzko informazioa
- > ante-mortem ikuskapena
- > Sakrifizio-katea
- > Laborategiko emaitzak

Hortaz, p.m. ikuskapena egin ondoren, haragia egokia den ebatziko da. Ebazpenaren arabera, haragia izan daiteke:

- > Kontsumorako egokia, mugarik gabe

- > Giza kontsumorako erabat ez-egokia: konfiskazio totala
- > Giza kontsumorako hein batean baztertua: konfiskazio partziala
- > Giza kontsumorako baldintzekin egokia: tratamenduren bat eman behar zaio. Ezin bazaio tratamendu hori eman, konfiskazio totala ebazpena eman beharko zaio.

D.3.1. Kontsumorako egokia mugarik gabe

Kategoria hori lortzeko, bi baldintza bete behar ditu haragiak: batetik, p.m. ikuskapenean inongo gaixotasun-frogarik edo akats onartezinik agertu ez duten abereen haragia izan behar du, eta, bestetik, bai sakrifizioa bera eta bai lana beharrezko baldintza guztiak beteta egin behar izan dira (higieneari dagozkienak, elika-kateari eta abereen ongizateari buruzko informazioari dagozkienak eta abar).

D.3.2. Giza kontsumorako ez-egokia

Honako kasu hauetan:

- > Ikuskapen Zerbitzuak ez badaude ados D.1.1 puntuan jasotako puntu orokorretan aztertutako alderdiren bati buruz. Halakorik gertatuko balitz, gerentziari jakinarazi beharko dio ikuskatzaileak, ahal bezain pronto konpon ditzan ez adostasunak; konponduko ez balitu, post-mortem ikuskapena ez da egingo, eta kanal guztiak kontsumora ez-egoki deklaratu dira.
- > ante-mortem ikuskapena egin ez zaien abereen haragia bada.
- > post-mortem ikuskapenean hondarrak aztertu ez zaizkien abereen haragia bada.
- > sakrifikatu aurretik hil diren abereen haragia bada, hilda jaio direnena, jaio ez direnena edo 7 eguneko bizia baino lehen sakrifikatu diren abereena bada.
- > Epizootien Nazioarteko Bulegoaren A zerrendan edo, kasuan kasu, B zerrendan agertzen diren gaixotasunen bat duten abereen haragia bada.
- > gaixotasun jeneralizaturen bat duten abereena bada (septizemia, piemia, toxemia edo biremia jeneralizatua);
- > haragia merkaturatzeko egokia den edo ez erabakitzeko legedia komunitarioak xedatzen dituen irizpide mikrobiologikoekin bat ez datorren haragia bada;
- > parasito-infestazio orokorra ageri badu.
- > legedia komunitarioak ezartzen dituen mailak gainditzen dituzten hondakin edo kutsatzaileak dituen abereena bada. Are gehiago, maila komunitarioak gainditzen dituzten haragirik sumatuz gero, eta egoki bada, bestelako analisi osagarri batzuk ere egin beharko dira.

- > araudi komunitario espezifikoagoek xedatzen dutenaz aparte, substantzia debekatuen hondakinak dituzten animalia edo kanalen haragia bada, substantzia horiekin tratatutako abereena bada, edo ilegalki substantzia deskontaminatzaileekin tratatutako abereen haragia bada;
- > ilegalki izpi ionizatzaileekin edo izpi ultra-moreekin tratatutako haragia bada;
- > gorputz arrotzak baditu (basoko ehizakien kasuan, animalia harrapatzeko erabilitako materiala izan ezik);
- > araudi komunitarioak baimentzen dituen erradioaktibitate-maila maximoak gainditzten baditu;
- > asaldura fisiopatologikoak, kontsistentzia anomaloa, odol-jario eskasa (basoko ehizakien kasuan izan ezik) baditu, edo anomalia organoleptikoak, bereziki, usain sexual fuertea;
- > desnutrizioa zuten abereen haragia bada;
- > arriskuko materialak baditu, legedia komunitarioak kontsideratzen dituen kasuetan izan ezik;
- > zikinkeria, kaken kutsadura edo bestelako kutsaduraren bat badu;
- > dagokion informazio guztia aztertu ondoren, al baitari ofizialaren iritziz, arriskutsua izan badaiteke osasun publikorako edo abereen osasunerako edo, beste edozein arrazoiengatik, ez bada giza kontsumorako egokia;
- > aberea odolustutzeko erabiltzen den puntuko haragia bada;
- > Europar Batasunaren 96/23 zuzentarauaren 5. artikulua arabera onartu diren planak aplikatu ondoren, ingurumenean metal astunen presentzia orokorra dela frogatu den eskualdeetako abereen kasuan, bi urte edo gehiagoko abereen gibel edo giltzurrunetatik ateratako haragia bada;
- > odolaren kasuan, gizaki nahiz abereen osasunerako arriskutsu izan badaiteke, odola atera zaion aberearen osasuna dela-eta edo sakrifizio-prozesuan gertatutako kutsadura dela-eta;
- > BEE gaixotasunean positibo eman duten abereen kasuan, dekomisatu egingo dira bai kanala, bai barrukiak, bai hondarrak eta bai larrua. Enpresak ezin badu bermatu ez dela kutsadurarik gertatuko hurbiltasunagatik, sakrifizio-sekuentzia aurretik hil den aberea eta hurrengo biak ere dekomisatuko dira.
- > Zistizerkoen infekzio jeneralizatu izanez gero, haragia giza kontsumorako ez-egoki deklaratu behar da.
- > Trikinaz infektatutako abereen haragia giza kontsumorako ez-egoki deklaratu behar da.
- > Post-mortem ikuskapenean zenbait organotan edo kanaleko zenbait partetan lesio tuberkulosoak agertu dituzten abereen haragia giza kontsumorako ez-egoki deklaratu behar da.

- > Post-mortem ikuskapenean infekzio akutuaren lesio sintomatikoak agertu dituzten abereen haragia giza kontsumorako ez-egoki deklaratu behar da.
- > Mukiaz infektatutako ekidoen haragia giza kontsumorako ez-egoki deklaratu behar da.

D.3.3. Giza kontsumorako hein batean EZ-EGOKI edo Hein batean baztertua

- > Kanalaren zati bati edo hondakinen zati bati eragiten dieten lesioak detektatzen bada, eta ez bada patologia orokorren bat adierazten duten bestelako lesio orokorrak sumatzen, zati kaltetuak kendu eta dekomisatu egin behar dira, eta kalterik ez duten zatiak, berriz, giza kontsumorako egoki deklaratu beharko dira, erabat edo baldintza batzuekin (hau da, arriskua kentzeko tratamendua egitea- D.3.4. puntua).
- > Organo bakar bateko ganglioetan edo kanalaren zati batean lesio tuberkulosoak badago, soilik organo hori edo kanal zati hori eta dagokion ganglio linfatikoa deklaratu behar dira giza kontsumorako ez-egoki.
- > Bruzelosiaren froga batean erreakzio positiboa edo ez oso argia ateratzen bada, inongo lesiorik antzematen ez bada ere, errapeak, traktu genitala eta odola giza kontsumorako ez-egoki deklaratu beharko dira.
- > Infekzioak, parasitosis, traumatismoak, hemorragiak eta abar direla-eta sortzen diren erreakzio-prozesu lokalizatuen kasuan, eta lesioa ez bada orokorra, zati hori dekomisatuko da.
- > Prebentziorako, kendu egin behar dira elika-katetik gaixotasun jakinen bat (esaterako, BEE) transmititzeko arriskutsutzat jotako materialak, betiere, ez badago bere patogeniari buruzko, eta kutsatzeko edo transmititzeko bideari buruzko ebidentzia zientifiko argirik ez badago.

D.3.4. Baldintzekin kontsumorako egoki

Kutsatutako haragiak edo gizakien edo abereen osasunerako arriskutsu diren haragiak baldintzekin kontsumorako egoki deklaratu dira, betiere, ofizialek gainbegiratuta, tratamendua emanda haragia kaltegabea edo osasungarria izango bada.

Horretarako beharrezko tratamendua eman eta gero, hortaz, haragia komertzializatu ahal izango da, ikuskapenak ezarritako baldintzak beteta.

- > Indarrean dagoen araudiak ezartzen duen trikina-azterketa egin ez duten txerri-azienden edo ekinoen haragi freskoari izozte-tratamendua eman beharko zaio.
- > Zistizerkoen infestazio ez-jeneralizatua ageri bada, parte infektatuak ere egoki deklaratu daitezke, hotzezko tratamendua aplikatu eta gero.

D.4. ERREGISTROA/TXOSTENA

EAEko hiltegietan egindako post-mortem ikuskapen-lanaren erregistroa aplikazio informatikoan jaso behar da. Hiltegietako gerentziaren inplikazioa nulia denez post-mortem ikuskapenean, Ikuskapen Zerbitzuari dagokionez, ez da beharrezko ikusten atal honetan beste atal batzuetan beharrezko den erregistroa/txostena eredu sartzea.

Gainera, hiltegietako aplikazio informatikoak badituenez ikuskapen zerbitzuak egindako post-mortem ikuskapenaren datuak, enpresako arduradunek badaukate informazio hori berehalakoan eskuratzea.

D.5. ERANSKINAK

D-1 Eranskina: Animalia susmagarriak detektatzea post-mortem ikuskapenean.

HARAGIAN HONDAKINAK OMEN DITUZTEN ABEREAK DETEKTATZEA POST-MORTEM IKUSKAPENEAN

Eranskin honetan azalduko dugun sintoma-zerrendaren helburua da detektatzea animaliarik edo loterik ba ote den debekatutako sustantziekin edo baimendutakoak izan arren gehienezko muga gainditu duten sustantziekin tratatuta, a.m. ikuskapenean ageri dituzten sintomak aztertuta.

Kasu bakoitza baloratuko du albaitari ofizialak, a.m. ikuskapenean detektatutako sintomak kontuan hartuta, p.m. ikuskapenak erakutsi dituen lesioak aztertuta, eta partida berdinean susmagarritzat jo diren abere-kopuruari erreparatuta.

Hortaz, abereren bat susmagarritzat hartzen bada, dagokion prozedura jarriko da abian, «Hondakinak ikertzeko Planak» agintzen duena betez. Abereren bat edo lote bat dudarik gabe susmagarritzat jotzeko, honako irizpideak hartuko ditu kontuan albaitariak:

Susmo txikia: normaltasunaren desbiazio txikia, dentsitate txikia delako edo indibiduo oso gutxitan agertu delako. Gerta liteke abere-lote batean ez-agerikotzat jotako karaktere bat baino gehiago agertzea (zuzeneko susmokoaz apartekoak), partidako bi animalia baino gutxiagotan, eta hala ere ez jotzea susmagarritzat.

Susmo ertaina: abereek karaktere nabarmenagoak agertzen dituzte, edo animalia gehiago daude karaktere horiek ageri dituztenak (partidako bi baino gehiago). Orokorrean, loteko bi abere baino gehiagotan bi edo hiru karaktere susmagarri agertzea, nahikoa da partida susmagarritzat jotzeko.

Susmo handia: egoera kritikoa da. «Oso susmagarri» kategorian sartzen diren sintomak agertzen dituzte abereek.

Karaktereen deskribapena:

1. Garapena eta konformazioa: garapen muskular handia, arraza eta adina kontuan hartuta. Baloratu behar da zein gradutakoa den eta loteko abereen zer proportziok duen: partida bateko bi aberekin baino gehiagok badute, partida susmagarritzat joko da.
2. Gantza, arraza eta adina kontuan hartuta. Gradua baloratuko da, bai eta partidako zein abere-proportziok duen ere.
3. Gantzaren kokapen anormala. Normalean emeek gizen gehiago dute arrek baino pelbis-inguruan. Gradua baloratuko da, bai eta partidako zein abere-proportziok duen ere.
4. Haragiaren kolorea. Desbiazioak bi izan daitezke: haragia ilunagoa izatea (betaagonistak) edo argiagoak izatea (antitiroideoak, kortikoideak). Gradua baloratuko da, bai eta partidako zein abere-proportziok duen ere. Haragia argiegia duen abere bat baino gehiago detektatuz gero, zuzenean susmagarritzat joko da.

5. Kanala hezea edo exudatua agertzea. Kanalen bat badago haragi hezeegia duena, partida oso oso susmagarritzat joko da.
6. Errazegi larrutzea. Gradua baloratuko da, bai eta partidako zein abere-proportziok duen ere.
7. Hemorragiak kanalean. Baldin eta hemorragiak muskulu-talde ezberdinetan agertzen badira, eta ez badira traumatismoren batek eragindakoak, eta, batez ere, barruko muskuluetan puntu itxurako hemorragiak agertzen badira, partida oso susmagarritzat jo beharko da, hemorragia duen aberea bakar bat bada ere. Hemorragiak traumatismoek eragindakoak badira, hemorragien distribuzioa baloratuko da, bai eta partidako zein abere-proportziok duen ere.
8. Degenerazio muskularra, kolorazio anormalak muskulu, gantz edo hezurretan. Agerikoak badira, lotea oso susmagarritzat joko da, abere bakar batek badauzka ere.
9. Inplante (solido nahiz likidoen) arrastoak, edo substantzia arrotzak. Halakorik detektatzen bada, abere bakar batean bada ere, partida oso susmagarritzat joko da.
10. Injekzioak salatzen dituzten lesio bereizgarriak: egiaztatzen bada hemorragiak, degenerazioak, nekrosia, fibrosia edo injekzioek eragiten dituzten bestelako lesioak badirela, injekzioak gehienetan jartzen diren lekuetan (lepo gainean, atzealdean, etab.) edo bestelakoetan (bularra, buztana, ugatzetako benak eta abar).
11. Karaktere sexualak: Bereziki barrabil txikiak dituzten arrak (estrogenoak, progestagenoak), edo, emeen kasuan, obario arinegiak (β -agonistak) dituztenak, edo obarioen jardun gehiegizkoa dutenak, batez ere, kiste folikularrak edo gorputz luteoak (estrogenoak) dituztelako. Gradua baloratuko da, bai eta partidako zein abere-proportziok duen ere.
12. Trakearen dilatazioa, gandor laua. Gradua baloratuko da, bai eta partidako zein abere-proportziok duen ere, eta partida susmagarritzat joko da baldin eta partidako bi animaliak baino gehiagok badute.
13. Timoaren atrofia. Gradua baloratuko da, bai eta partidako zein abere-proportziok duen ere.
14. Glandula adrenalaren atrofia. Glandula osoarena edo gainazal adrenalarena izan daiteke. Gradua baloratuko da, bai eta partidako zein abere-proportziok duen ere.
15. Egurastean pisua galtzea, normalaz gaindi ($>3\%$). Gradua baloratuko da, bai eta partidako zein abere-proportziok duen ere.
16. Neurri anormaleko gibela edo giltzurrunak. Gradua baloratuko da, bai eta partidako zein abere-proportziok duen ere.

17. Tiroidearen neurria eta morfologia. Normala baino astunagoa den tiroidea edo forma anormala duen tiroidea detektatuz gero, partida osoa susmagarritzat joko da. 70 gramotik gorako pisuak oso garbi adierazten du ziurrenik tireoestatikoaren tratamendua eman zaiola abereari, baina hori baino pisu arinagoekin ere katalogatu daiteke partida susmagarritzat.



Zigilatzea-markatzea

E.1. Ikuskapena

- > Markatze-materiala
- > Kontsumorako haragi egokien marka
- > Kontsumorako haragi ez-egokien marka
- > Kontsumorako egoki diren zehazteko zain dauden haragien marka

E.2. Maiztasuna

- > Markatze-materiala
- > Kontsumorako haragi egokien marka
- > Kontsumorako haragi ez-egokien marka
- > Kontsumorako egoki diren zehazteko zain dauden haragien marka

E.3. Erabakia-jarduna

- > Markatze-materiala
- > Kontsumorako haragi egokien marka
- > Kontsumorako haragi ez-egokien marka
- > Kontsumorako egoki diren zehazteko zain dauden haragien marka

E.4. Erregistroa/Txostena

E.5. Eranskina

- > E-1:Erregistroa/Txostena

> *zigilatzea eta markatzea*



E KAPITULUA

ZIGILATZEA ETA MARKATZEA

Post-mortem ikuskapena bukatu ondoren, eta haragien ebazpena eman ondoren (giza kontsumorako egokia, baldintzekin egokia edo ez-egokia), beharrezkoa da haragiak sistematikoki markatzea, ikuskapenaren emaitza adierazteko. Izan ere, emaitza adierazita errazago manipulatu eta ezabatuko dira haragiak kontsumitzailearengana iritsi aurretik, eta, hala, ez dute kalterik eragingo.

Kanalen markaketan zein baldintza bete behar diren argi adierazita dago «Espezie Handien Hiltegiko instrukzio teknikoak», Etiketatu eta Markatu atalean. Ondoren zehaztuko ditugun puntuei egin beharreko kontrolak, instrukzioan finkatzen diren kalitate-ezaugarriak kontuan hartuta egin behar dira.

E.1. GAINBEGIRAPENA

E.1.1. Markatze-materiala

Gainbegiratu behar da markatze-materiala behar bezain garbi dagoela eta baimendutakoa dela.

E.1.2. Kontsumorako haragi egokien marka

Gainbegiratu behar da zigilatu behar diren atal guztietan jarri dela albaitariaren ikuskapenaren marka, haragian, barrukietan eta abar. Betiere, haragi freskoak kontsumorako egokiak direla ebatzi ondoren, eta albaitari ofiziala bertan dagoela.

Begiratu behar da inprimatutako karaktereak argi irakurtzeko modukoak direla.

Ziurtatu behar da kanalak, barrukiak, hondarrak eta abar dagokien puntu edo zati guztietan markatu direla.

E.1.3. Haragi ez-egokien marka

Begiratu behar da giza kontsumorako ez-egoki deklaratu diren haragiak ez direla marka sanitarioarekin zigilatu, baizik eta behar bezala identifikatu direla ebakiak eginez, komertzializatzeko ezinezko egiteko, eta, gainera, EZ-EGOKI etiketa jarri zaiela, kanalaren identifikazio indibiduala ere ageri duena.

E.1.4. Behin betiko ebazpenaren zain dauden haragien marka

Begiratu behar da albaitari ofizialak, enpresako arduradunei jakinarazi, eta giza kontsumorako egoki deklaratzeko ebazpenaren zain utzi dituen kanalak, barrukiak eta abar ez direla zigilatzen ebazpena eman arte.

E.2. MAIZTASUNA

E.2.1. Markatze-materiala

Egunero begiratu behar da, eta zigilatu aurretik, lanabesak behar bezala daudela, erabiltzeko moduan.

E.2.2. Kontsumorako haragi egokien marka

Haragi egokien marka sanitarioa behar den bezala jarri den egiaztatzeko, sakrifikatu diren espezie ezberdineko animalia guztien %10 aztertu behar da, egunero. Egiaztapen hori sakrifizio-lerroaren amaieran egingo da, kanalak hozkailuan sartu aurretik, hozkailuan bertan edo kanpora bidaltzeko unean. Gainera, begiratu behar da haragi guztiak zigilatu direla, karaktereak irakurtzen direla eta markak legeak agintzen duen puntuetan jarri direla.

E.2.3. Kontsumorako haragi ez-egokien marka

Egunero egin behar da. Sakrifizioaren amaieran, begiratu behar da ez-egoki deklaraturako haragi guztiak behar bezala identifikatu direla.

E.2.4. Behin betiko ebazpenaren zain dauden haragiaren marka

Egunero, sakrifizioaren amaieran edo AZOk egoki ikusten duenean, begiratu behar du kontsumorako egokitasunaren behin betiko ebazpenaren zain dauden haragiak zigilatu gabe daudela. Zigilatuko dira AZOk haragiok egoki edo ez-egoki ebazten dituen.

E. 3. ERABAKIA-JARDUNA

E.3.1. Markatze-materiala

Zigilatze materiala edo lanabesetan anomaliarik detektatuz gero, manipulazioa erabat debekatuko da, harik eta material guztiak prest egon arte, behar bezalako kondiziotan.

E.3.2. Kontsumorako haragi egokien marka

Hiltegiko hozkailuan edo bestelako gelaren batean, zigilatu gabeko haragia, barrukiak, hondarrak eta abar badaude, immobilizatu egin beharko dira eta zer-nolako identifikazioa daukaten aztertu, haragiok zigilurik gabe zergatik dauden argitu arte.

Baldin eta aberea a.m. ikuskapena egin gabe sakrifikatu bada eta ikuskapen sanitarioak baimena eman gabe, kanala, barrukiak, hondarra eta larrua dekomisatu egingo dira.



Prozesatze-arazoa izan bada (langilearen despistea, hozkailuan gaizki jartzea eta abar), eta ez badago zigilatzeako bestelako ezintasunik ez badago, gerentziari jakinaraziko zaio, zigila dezan eta halakorik berriz ez gertatzeko hartu beharreko neurriak har ditzan.

Zigilatuan anomaliak detektatzen badira (adibidez, markarik ez egotea kanalaren zati batzutan edo produktu lotetan, inprimatzea desegokia izatea edo irakurtzea ezinezko edo zail egiten duen bestelako akatsen bat), kanalak desbideratu egingo dira behar bezala zigilatzeako.

E.3.3. Haragi ez-egokien marka

Egiaztatuko balitz ez-egoki deklaraturako haragiak ez daudela dagokien bezala identifikatuta, berehala jakinaraziko zaio enpresari, behar bezala zigila ditzan.

Egiaztatuko balitz, ebazpen-zain utzitako haragitako batzuk ez daudela hiltegiko instalazioetan, hiltegiko arduradunei jakinaraziko zaie, eta berehala aginduko zaio enpresari haragi horiek berehala jasotzeko. Halakorik gertatuz gero, ikuskapen-akta hartuko da, zer gertatu den jasota uzteko.

E.3.4. Behin betiko ebazpenaren zain dauden haragien marka

Ikusiko balitz, enpresako arduradunak jakinean daudela, AZOk bereziki kontsumorako egokitasunaren behin betiko ebazpenaren zain uzteko agindu dituen haragiak hiltegiko

hozkailuan edo beste gelaren batean jasota dituztela zigilu eta guzti; kautelaz interbenituko ditu albaitariak, ikuskapen-aktaren bidez, eta bertan adieraziko du horrek zer ondorio larri ekar ditzakeen osasun publikoan.

Egiaztatuko balitz, ebazpen-zain utzitako haragitako batzuk ez daudela hiltegiko instalazioetan, hiltegiko arduradunei jakinaraziko zaie, eta berehala aginduko zaie haragi horiek berehala berreskuratzeko. Halakorik gertatuz gero, ikuskapen-akta hartuko da, zer gertatu den jasota uzteko.

E.4. ERREGISTROA/TXOSTENA

Albaitari ofizialak E-1 Eranskineko informazi-erregistroa egiteko ereduan jaso beharko ditu antzemandako intzidentziak, eta erregistro horren bidez, enpresako operadoreari jakinaraziko zaio ze irregulartasun detektatu diren eta zer erabaki duen albaitariak horiek konpondu artean enpresak betetzeko.

E.5. ERANSKINAK

E-1 Eranskina: Kontrol ofizialaren Erregistroa/Txostena. Marka sanitarioa.

C-1. ANTE-MORTEM IKUSPENA

Hiltegia:

Teknikari arduraduna:

Ikuskatzea egin zen eguna:

Ordua:

Intzidentzia-kodea	Incidencia	Intzidentzia-kodea	Jarduna/ Erabaki kodea	Enpresak hartu beharreko neurri zuzentzaileak*	Intzidentzia konpondu da BAI/EZ
E.1.1	Zigilatze lanabesek ez dituzte beharrezko baldintzak betetzen		E.3.1.		
E.1.2	Markarik gabeko edo gaizki markatutako haragiak aurkitu dira		E.3.2		
E.1.3	Haragi ez-egokiak zigilu sanitarioa dutela edo gaizki ezberdinduta daudela aurkitu dira		E.3.3		
E.1.4	Kontsumorako egoki direla adierazten duten zigilu sanitario jarrita dutela aurkitu dira kontsumorako egokitasunerako behin betiko ebazpenaren zain utzitako haragi batzuk		E.3.4.		

* Intzidentziaren xehetasunak «Oharrak» atalean zehaztu behar dira. «Neurri zuzentzaileak» atalean, intzidentzia konpontzeko enpresari agindutako neurriak adierazi behar dira (ezin bada hala egin, «Oharrak» atalean jarri)

Oharrak:	Interesatuaren alegazioak:

Sinadura: Ikuskatzailea

Sinadura: Establezimenduaren arduraduna

ÁLAVA
Santiago, 11 - 010002 VITORIA-GASTEIZ
Tel.: 945 01 71 71 - Fax: 945 01 71 79

BIZKAIA
M^a Díaz de Haro, 58 - 48010 BILBAO
Tel.: 94 403 15 00 - Fax: 94 403 15 98

GIPUZKOA
Avda. de Navarra, 4 - 20013 DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN
Tel.: 943 02 27 00 - Fax: 943 02 27 01



Higienea sakrifizioan

F.1. Gainbegiraketa

- > Langileen higiena
- > Prozesuen higiena
- > Instalazio eta lanabesak
- > Manipulazio-lan onak

F.2. Maiztasuna

- > Langileen higiena
- > Prozesuen higiena
- > Instalazio eta lanabesak
- > Manipulazio-lan onak

F.3. Erabakia-jarduna


- > Langileen higiena
- > Prozesuen higiena
- > Instalazio eta lanabesak
- > Manipulazio-lan onak

F.4. Erregistroa/Txostena

F.5. Eranskinak:

- > F-1: Erregistroa/Txostena

> *higienearen kontrola sakrifizioan*



F KAPITULUA

HIGIENEAREN KONTROLA SAKRIFIZIOAN

F.1. GAINBEGIRAKETA

Albaitari ofizialak ziurtatu behar du animaliak sakrifikatzeko lanaren fase guztietan beharrezko higie-ne-baldintzak betetzen direla, «Espezie Handien Hiltegiko instrukzio teknikoak» Langileen higie-ne-a eta Lanen higie-ne-a kapituluetan adierazten duenari jarraiki. Izan ere, sakrifizio-lanek haragi-produkzioan kutsadura-arrisku gehiago ekartzea ebitatu behar da. Higie-ne-kontrolak, hortaz, instrukzio horretan xedatzen diren kalitate-ezaugarriak kontuan hartuta egin beharko dira.

F.1.1 Langileen higie-ne-a

Eguneko lanari ekiterakoan, begiratu behar da manipulatzeko ibiliko diren langileek lanerako ekipo osoa dutela, eta behar bezain garbi.

Begiratu behar da eskuak, goanteak, mantalak, botak eta abar behar bezain maiz garbitzen direla, eta ondo garbitu gainera, manipulazioa higienikoa izango dela bermatzeko moduan.

Ziurtatu behar da langileren batek zauriren bat badu behar bezala isolatuta daukala, benda iragazgaitz eta isolatzaileak jarrita.

F.1.2. Prozesuen higie-ne-a

Begiratu behar da benetan errespetatzen dela sakrifizioa sartzeko abereen ordena (espeziea, adina, urgentziak, saneamendu-kanpainak....)

F.1.3. Instalazio eta lanabesak

Begiratu behar da instalazio nahiz lanabesak sakrifizioa higienikoa izango dela bermatzeko moduan daudela, hau da, sakrifizio-nabea, sakrifizio-kateko lanabesak, aitzo anitzen sistema, desinfekzio-ekipoak, ura, hotz-ekipoak eta abar garbi daudela.

F.1.4. Manipulazio-lan ona

Orokorrean:

Ziurtatu behar da haragiarekin lan egiteko garaian kanaletako gune kutsatu guztiak kentzen direla, bai eta post-mortem ikuskapenean albaitari ofizialak kentzeko agindu duen beste haragi-zatiak ere. Haragi hori guztia expurgoaren bidez kendu behar da, birrinduz; gainera, expurgoa egin ondoren ere lanak higienikoa izaten jarraituko duela bermatu beharko da: lanabesak garbitu eta desinfektatu behar dira, baita eskuak eta arropa ere, beharrezko bada...



Prozesu guztian, gainera, begiratu behar da haragietara ez dela urik ziprztintzen, eta ez zaiela bestelako manipulazio okerrik egiten, adibidez, aiztoak sartu, trapuak erabili, tripak kentzerakoan botekin indarra eginez lagundu eta abar.

Odolustea:

Aberea erabat odolustu dela ziurtatu behar da, eta giza kontsumorako den odola metodo mekaniko higienikoen bidez jaso dela.

Larrutzea:

Lan hori behar bezala egiten dela begiratu behar da, kontuan hartuta, larrutzeko modu egokia sekuentziala dela, larrutatik kutsadura pasatzea ebitatu behar dela, ebakiak beti kanporantz egin behar direla edota larruaren kanpoko aldeak ezin duela ukitu kanalaren gainazala.

Irakitea:

Laneguna hasterako irakite-ontzia garbi dagoela eta sakrifizio-garaian ere hala dagoela begiratu behar da.

Ziurtatu behar da irakiteko uraren tenperatura ez ezik abereek ontzian pasatzen duten denbora egokia dela.

Begiratu behar da lanegunaren amaieran irakitearen hondarrak kendu egiten direla ontzitik eta ontzia bera erabat eta ondo garbitu dela.

Tripak kentzea:

Begiratu behar da toraxaren eta abdomenaren barrunbea irekitzean ez direla barne-organoak zartatzen eta, kasuan kasu, zartatuko balira berehala garbitzen dela kaltetutako ingurua.

Abdomen-barrunbetik ateratako edukia berehala ebakatu behar da sakrifizio-nabetik barrunbe-gelara.

Begiratu behar da espezie guztietan uzkia eta esofagoa korapilatu egiten direla.

Ziurtatu behar da tripak zorabiatu ondoren 45 minutu pasa baino lehen kentzen direla, eta, erritu erlijiosoen kasuan, odolustu ondoren ordu-erdi pasa baino lehen.

Hotzean biltegiratzea

Begiratu behar da haragia berehala sartzen dela hozkailuan edo izozkailuan sartzerakoan (kasuan kasu), eta, betiere, egoki den tenperatura errespetatzen dela uneoro.

Begiratu behar da biltegitutako haragiak mantentze-baldintza egokitan daudela eta ez dutela ageri karaktere organoleptiko alteraturik dutenik, bizitza-periodo erabilgarria gaintu delako.

F.2. MAIZTASUNA

F.1 atalean azaldutako puntu guztiak egunero gainbegiratu behar dira, kasu bakoitzean dagokion maiztasuna errespetatuz:

F.2.1. Langileen higieena

Egunero, lan-jarduna hasterakoan, begiratu behar da langile guztiek beharrezko arropa eskura eta prest duela, osoa eta garbi.

Egunero, uneoro begiratu behar da langileen garbitasuna ez dela haragia kutsatzeko arriskutsu, eta zauriren bat edo egiten badute, behar bezala isolatzen dituztela. Uneoroko gainbegiraketa horretaz gain, eguneko jardunean, albaitariak agindutako unetan, gutxienez bitan, hori langileen higieena sakonago behatu beharko da berriz.

F.2.2. Lanaren higieena

Egunero, produkzio-prozesuaren edozein unetan, egiaztatu behar da ondo betetzen dela AZOk, arrisku-taldeetan oinarrituta, sakrifiziara sartzeko ezarritako abere-ordena.

Tarteka, kanalak atxikitzen direnean, zerbait dekomisatzen denean eta abar, egiaztatu behar da baztertu beharreko haragi horiek behar besteko higieenez baztertzen direla, gainerako haragiekin kontaktua ebitatuz.

F.2.3. Instalazio eta lanabesak

Egunero, sakrifizioari ekitean, begiratu behar da egoki eta garbi daudela hitzeko nabea, ekipoak, tresnak, ur beroa eta hotza, desinfekzio-sistemak, biltegitratze-kameren tenperatura eta abar.

Egunero, produkzio-prozesuaren edozein unetan, begiratu behar da lanabesak sarritan eta ondo garbitu eta desinfektatzen direla. Uneoroko gainbegiraketa horretaz gain, eguneko jardunean, albaitariak agindutako unetan, gutxienez bitan, hori guztia espresuki gainbegiratu beharko da berriz.

F.2.4. Manipulazio-lan ona

Orokorrean:

Egunero, sakrifikatutako abereen %20ko lagina aztertuta, eta, albaitariak agindutako unetan, gutxienez, bitan, honako puntu hauek gainbegiratu behar dira:

- > Higiene-arau orokorrak
- > Odoluste lan higienikoa
- > Larrutze lan higienikoa
- > Tripak kentzeko lan higienikoa
- > Haragiak biltegiratzea

Irakitea:

Laneguna hasterako irakite-ontzia garbi dagoela eta sakrifizio-garaian ere hala dagoela begiratu behar da.

Ziurtatu behar da irakiteko uraren tenperatura ez ezik abereek ontzian pasatzen duten denbora egokia dela.

Begiratu behar da lanegunaren amaieran irakitearen hondarrak kendu egiten direla ontzitik eta ontzia bera erabat eta ondo garbitu dela.

F.3. ERABAKIA-JARDUNA

F.3.1. Langileen higiena

Lan-jarduna hasteko garaian, ikusiko balitz langileek behar duten arropa ez daukatela prest edo, orokorrean, langileak ez daudela behar bezain garbi, sakrifizioa atzeratu egingo da; harik eta, arduradunei jakinarazi ondoren, akats hori konpontzen duten arte.

Lan-jardunean zehar, ikuskapen-zerbitzuek antzemango balute are neurri gehiago hartzea beharrezkoa dela langileen arropa, zauriak eta abar direla-eta, arduradunari jakinaraziko zaio, berehalakoan arazo horiek konpon ditzan. Hala ez bada, sakrifizioa bertan behera utziko da, akatsok erabat konpondu arte.



F.3.2. Lanen higieena

Albaitariak agindutako sakrifizio-ordena aldatuko balitz eta, horren ondorioz, p.m. ikuskapenean erroreak gerta badaitezke, AZOk agindutako neurri guztiak aplikatu beharko dira, kanalei arrisku-taldearen arabera dagozkien neurri osagarri guzti-guztiak aplikatzeko. Halaber, arduradunei gertatutako irregulartasuna jakinaraziko zaie, eta adierazi hori arrisku oso larria izan daitekeela osasun publikorako.

F.3.3. Instalazio eta lanabesak

Eguneko lan-jarduna hastean, ebidentzia objektiboz ikusiko balitz instalazioak, ekipoa eta manipulazio-lanabesak ez direla behar bezala garbitzen eta desinfektatzen, edo lanabesak ez daudela edo ez dutela ondo funtzionatzen, atzeratu egingo da sakrifizioari ekiteko unea, harik eta akats horiek guztiak konpontzen diren arte.

Ebidentzia horiek lan-jardunean zehar behin eta berriz detektatuko balira, arduradunari jakinarazi beharko zaio, berehala konpon ditzan. Hala ez bada, sakrifizioa bertan behera utziko da, akatsok erabat konpondu arte.

F.3.4. Manipulazio-lan ona

Lanetan, edozein fasetan, lan okerrak egiten ari direla detektatuz gero, arduradunari jakinarazi beharko zaio, egoera berehala konpon dezan. Hala ez bada, sakrifizioa bertan behera utziko da, akatsok erabat konpondu arte.

Intzidentzia jakinarazteaz aparte, detektatutako manipulazio oker horren erruz, haragia biltegitratzea barne, haragia EZ-EGOKI edo HEIN BATEAN EZ-EGOKI deklaratu behar bada, D kapituluari, «Post-mortem ikuskapena» kapituluari xedatzen diren neurriak aplikatu beharko dira (D.3.2., D.3.3. eta D.3.4. atalak, kasuan kasu)

F.4. ERREGISTROA/TXOSTENA

Albaitari ofizialak jaki-enpresako operadoreari jakinarazi behar dio, G-1 eranskinetako informazio-erregistroko ereduak erabiliz, zer irregulartasun detektatu diren eta albaitariak zer neurri ezarri dizkion enpresari betetzeko.

F.5. ERANSKINAK

F-1 Eranskina: Kontrol ofizialaren Erregistroa/Txostena.
Manipulazio zein laneko higiearen ikuskapena.

F.1. SAKRIFIZIOAREN HIGIENEAREN IKUSKAPENA

Hiltegia:

Teknikari arduraduna:

Ikuskatzea egin zen eguna:

Ordua:

Intzidentzia-kodea:	Intzidentzia	Intzidentzia-kopurua	Jarduna/Erabakia kodea	Enpresak ezarri beharreko neurri zuzentzaileak*	Intzidentzia konpondu da BAI/EZ
F.1.1	Langileek ez daukate eskura beharrezko arropa, edo garbitasun-baldintzak ez dira egokiak sakrifizioaren higieena egokia izango dela bermatzeko		F.3.1		
F.1.2	Akatsak detektatu dira sakrifizio-ordenan		F.3.2		
F.1.3	Instalazio, lanabes, ekipo eta abarren garbitasun-baldintzak ez dira egokiak sakrifizioaren higieena egokia izango dela bermatzeko		F.3.3		
F.1.3	Beharrezko diren ekipo, lanabes eta gailu batzuk ez daude eskura		F.3.3		
F.1.4	Lan okerra detektatu da puntu hauetan: > higieena orokorrean > odolustea ez da erabatekoa, edo odola ez da higienikoki biltzen > larrutzean lan antihigienikoa > tripak kentzean lan antihigienikoa > biltegiatze okerra > irakite-ekipoen kontrol desegokia		F.3.4		

* Intzidentziaren xehetasunak «Oharrak» atalean zehaztu behar dira. «Neurri zuzentzaileak» atalean, intzidentzia konpontzeko enpresari agindutako neurriak adierazi behar dira (ezin bada hala egin, «Oharrak» atalean jarri)

Oharrak:	Interesatuaren alegazioak:

Sinadura: Ikuskatzailea

Sinadura: Establezimenduaren arduraduna

ÁLAVA
Santiago, 11 - 010002 VITORIA-GASTEIZ
Tel.: 945 01 71 71 - Fax: 945 01 71 79

BIZKAIA
M^a Díaz de Haro, 58 - 48010 BILBAO
Tel.: 94 403 15 00 - Fax: 94 403 15 98

GIPUZKOA
Avda. de Navarra, 4 - 20013 DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN
Tel.: 943 02 27 00 - Fax: 943 02 27 01



AME materialen kontrola

G.1. Ikuskapena

- > Ateratzeko lanabes eta sistemak
- > Lanen higieena
- > AMEen tindaketa eta desnaturalizazioa
- > Haragien identifikazioa
- > Erregistroen eguneratzea

G.2. Maiztasuna

- > Ateratzeko lanabes eta sistemak
- > Lanen higieena
- > AMEen tindaketa eta desnaturalizazioa
- > Haragien identifikazioa
- > Erregistroen eguneratzea

G.3. Erabakia-jarduna

- > Ateratzeko lanabes eta sistemak
- > Lanen higieena
- > AMEen tindaketa eta desnaturalizazioa
- > Haragien identifikazioa
- > Erregistroen eguneratzea

G.4- Erregistroa/Txostena

G.5- Eranskinak

- > G-1: Erregistroa/Txostena
- > G-2: Sakrifizioen bolumena/AME bolumenaren erregistroa



> AME kontrolak

G KAPITULUA

AME KONTROLAK

AMEak arautzen dituen araudia espezifikoak agintzen duena betez, albaitari ofizialak material horiek erretiratu, koloratu eta, egoki bada, markatu egiten direla egiaztatu beharko du, eta ziurtatu beharko du jaki-enpresako ustiatzailek beharrezko neurri guztiak hartzen dituela material horiekin haragia ez kutsatzeko, ez sakrifizioan bertan eta ez elika-katetik erretiratzerakoan ere.

Gainbegiratze-kontrolak «Espezie Handien Hiltegiko instrukzio teknikoak» agintzen duen eran egin behar dira, alegia, ekipoak eta lanabesak, eraikinen diseinua eta disposizioa, lanen higieenea, azpiproduktuen maneia, etiketatua, eta AME materialen trazabilitatea eta erretiratzea lantzen dituzten atalak kontuan hartuta.

G.1. GAINBEGIRAKETA

G.1.1. Ateratzeko lanabesak eta sistemak

AME materialak ateratzeko lanabesak eta sistemak eskura daudela eta behar bezala da-biltzala egiaztatu behar da, betiere, «Espezie Handien Hiltegietako instrukzio teknikoak» «Lanabesak eta sistemak» atalean zehazten dituen puntuak aztertuz:

- > Tinta baimendua badagoen,
- > Zorabiatzeko bi ekipo badauden, BEEren kontrako babes-arauak betetzen direla bermatzeko.
- > Soilik AMEak ateratzeko erabiltzen diren lanabesak badauden
- > Desinfekzio-materialik badagoen
- > Orno-muina xurgatzeko sistema badagoen, eta ondo funtzionatzen duen
- > AMEak biltzeko sistemak (gurdi estankoak) badauden, edo, kasuan kasu, AMEak zuzenean helmugako lokaletara eramateko sistemak badauden.

G.1.2. Lanen higieenea

Begiratu behar da langileak manipulazio-baldintzen jakinaren gainean daudela, eta instrukzio eta prestakuntza egokia jaso dutela lan-higieenari buruz. Baldintza horiek guztiak lanen higieenari buruzko atalean daude jasota, «Espezie Handien Hiltegiko instrukzio teknikoak».

Hona hemen:

- > Zehaztutako arrisku-taldeen arabeko ordenan eraman abereak sakrifizioa.

- > Aizto anitzen sistema behar bezala erabili.
- > AMEak erabat atera, orno-muinaren kanaletik meninge-hondar guztiak kentzea, eta sortutako zerrautsa guztia ere kendu.
- > 12 hilabete baino gehiago duten behi-aziendako abereen buruko haragia higienikoki atera.
- > Laborategirako lagina higienikoki atera.
- > Bizkar-hezurra kendu, kentzea behar zaien kanal guztiei.
- > Lanabesak garbitu eta desinfketatu.

G.1.3. AMEak tindatu eta desnaturalizatzea

AMEak tindatzeko eta desnaturalizatzeko lana nola egiten duten aztertu behar da, «Espezie Handien Hiltegietako instrukzio teknikoak» AMEak kentzeko atalean xedatzen duena gogoan hartuta:

- > Kendutakoan, berehala jarri AMEak horretarako edukiontzi berezietan.
- > Edukiontzian jarri eta berehala tindatu.
- > AMEak sakrifizio-nabetik atera, hilketak jartzen duen erritmoaren arabera.
- > Sakrifizioa amaitu ondoren, AMEak erabat atera nabetik.

G.1.4. Haragien identifikazioa

- > Haragiak behar bezala etiketatuta daudela begiratu
- > 24 hilabete baino gutxiago duten ardi-azienden kasuan, banda urdina markatu etiketan
- > Bizkar-hezurra kendu eta baimendutako zatiketa-salatara eraman zaien kanalen kasuan, ziurtatu behar da laguntza-dokumentuak argi adierazten duela kanal horiek atera zaizkien abereak zein adin duten edo noiz jaiotakoak diren.

G.1.5. Erregistroak eguneratzea

- > Desegin behar diren AMEen erregistroak eta laguntza-dokumentuak aztertu behar dira, Espezie Handien Hiltegietako instrukzio teknikoaren «Dokumentu-erregistroa» atalak agintzen duena kontuan hartuta. Egiaztatu behar da enpresak baimendutako tratamendu-plantara bidalitako dokumentuak (AMEak bidali izanaren eta jaso izanaren dokumentuak) behar bezala beteta daudela, eta erakusten dutela materialei 1. kategoriako materialei dagokien tratamendua eman zaiela.
- > Horrez gain, egiaztatu behar da espero behar den korrelazioa dagoela (G-2 eranskineko txantiloien arabera) enpresak tratamendu-plantara bidaltzen dituen dokumentuetan agertzen den AME bolumenaren eta sakrifikatutako abereen adinaren arabera (kategoria komertzialaren arabera) sortutako bolumen errealearen artean.



G.2. MAIZTASUNA

G.1. atalean zehaztutako puntu horiek guztiak egunean behin gainbegiratu behar dira, egokitzen zaien bezain sarri:

G.2.1. Ateratzeko lanabes eta sistemak

Egunean behin, sakrifizioari ekitean, lanabesak prest eta eskura daudela begiratu behar da.

G.2.2. Lanen higieena

Egunero, uneoro, begiratuko dira manipulazio-lanak. Uneoroko gainbegiraketa horretaz gain, albaitariak agindutakoan, egunero gutxienez, bitan, sakrifikatutako abereen %20ko lagina aztertuko da, manipulazio-lanak behar bezala egiten direla egiaztatzeko.

Haragiak dagokien norakora bidali aurretik, sakrifikatutako abereen %20 aztertuko dira, AMEak erabat kendu direla egiaztatzeko.

G.2.3. AMEak tindatu eta desnaturalizatzea

Prestaketa-lanaren fasean, edukiontzietan bildutako materialen tindaketa gainbegiratu behar da, eta sakrifizio-nabetik ebakutzen direla egiaztatu.

Sakrifizioa amaitzen denean, AMEak sakrifizio-nabetik erabat atera direla egiaztatu behar da, instalazioak eta lanabesak garbitu eta desinfektatu direla eta hilketan eragindako material guztiak behar bezala tindatu direla.

G.2.4. Haragien identifikazioa

Egunero, kanalen %20 aztertuta, kanalek zein haragien laguntza-dokumentuek beharrezko baldintza guztiak betetzen dituztela egiaztatu behar da.

G.2.5. Erregistroen eguneratzea

Hilean behin, begiratu behar da AMEen tratamenduaren bidalketa- eta harrera-dokumentuak behar bezala beteta daudela eta bat datozela bai datetan, bai kopuruetan, material-motan eta abar.

Hilero, sakrifikatutako behi-, ardi- eta ahuntz-aziendei buruzko datuak erregistratuko dira, bai eta hiltegiko erregistroetan agertzen den AME bolumena ere (bidalketak). Desbiaziorik baden begiratu behar da, eta, baldin badago, aztertu.

Urtero, urtean zehar erregistratutako datuen konputua dagokion azpi-zuzendaritzara bidali behar da, lurraldez lurraldeko balorazioa egiteko.

G. 3. ERABAKIA-JARDUNA

G.3.1. Ateratzeko lanabesak eta sistemak

Ikusten badu ateratze-sistemak, atzeratzeko lanabes eksklusiboak, edukiontzi eksklusiboak edo tinta falta direla, al baitari ofizialak arduradunei dagokien komunikazioaren bidez, debekatu egingo du manipulazioa, beharrezko lanabesak eskuratu arte.

G.3.2. Lanen higieena

Manipulazio-lan txarrak sumatzen direnean, enpresako arduradunari jakinarazi behar zaio, lan txar horiek zuzentzeko al baitariak ezarritako neurriak aplikatzen has dadin. Ez baditu berehalakoan aplikatzen, jarduera bertan behera geldiarazteko aginduko du.

Haragiak biltegian gordetzean edo kanpora bidaltzean antzeman bada AMEak ez direla erabat ateratzen, AME duten haragiak immobilizatu egingo dira, material horiek erabat eta



ondo kentzeko, eta halaxe jakinaraziko zaio enpresako gerentziari. AMEak erabat atera di-rela egiaztatuta geratzen denean, haragiak liberatu egingo dira kontsumora ateratzeko.

AMEak erabat kendu gabe daudela prestaketa-fasean detektatuko balitz, jarduera geldia-raziko da eta gerentziari jakinaraziko zaio, ezarritako neurri zuzentzaile guztiak bete ditzan, jarduerari berriro ere ekin ahal izateko.

G.3.3. AMEen tindaketa eta desnaturalizazioa

Desegitera eramateko apartatuta dauden AMEen tindaketa ez bada behar bezalakoa, edukiontzia immobilizatu egingo da, lehenik, eta enpresari jakinaraziko zaio gero, ez baitzaio baimenik emango AMEak eramateko harik eta erabat desnaturalizatzen diren arte.

G.3.4. Haragien identifikazioa

Haragien etiketatan anomaliarik detektatuko balitz, irregulartasun hori duten haragiak atxiki egingo dira, eta enpresari jakinaraziko zaio gorabehera hori zuzendu dezan eta, ondoren, al baitariak kontsumorako egokitasunaren ebazpena eman diezaion.

G.3.5. Erregistroak eguneratzea

AMEak bidaltzeko dokumentuetan irregulartasunik sumatuko balitz, edota baimendutako plantan tratatu ondoren ematen diren harrerako dokumentuetan irregulartasunik sumatuko balitz, enpresari jakinaraziko zaio, erregulartasuna berehalakoan konpon dezan. Kasu horretan, irregulartasuna jakinarazteko ikuskapen-akta erabiliko da, bertan jasoko baita gertatutakoa.

Baldin eta irregulartasuna bada ez datozela bat hiltegian sortutako AMEen hileroko ebaluazioa (bidalketak) eta AMEen bolumen estimatua (sakrifizioen eta G-2 eranskineko datuen arabera), berehala jakinarazi beharko zaio enpresako arduradunari, datuak ebaluatzeko, kausak identifikatzeko eta, hala, arazoa konpontzeko.

G.4. ERREGISTROA/TXOSTENA

Albaitari ofizialak jaki-enpresako operadoreari jakinarazi behar dio, G-1 eranskineko informazio-erregistroko eredua erabiliz, zer irregulartasun detektatu diren eta albaitariak zer neurri ezarri dizkion enpresari arazoa konpondu bitartean betetzeko.

G.5 ERANSKINAK

- | | |
|----------------|--|
| G-1 Eranskina: | Kontrol ofizialaren Erregistroa/Txostena. AMEak kendu eta desegiten direla egiztatzeko gainbegiraketa. |
| G-2 Eranskina: | Bidalitako AMEen eta sakrifizio-bolumenaren arteko korrelazioaren gainbegiraketa. |



G-1. AMEAK KENDU ETA DESEGIN DIRELA EGIAZTATZEKO GAINBEGIRAKETA

Hiltegia:

Teknikari arduraduna:

Ikuskatzea egin zen eguna:

Ordua:

Intzidentzia-kodea	Intzidentzia	Intzidentzia-kopurua	Jarduna/ Erabakia kodea	Enpresak ezarri beharreko neurri zuzentzaileak*	Intzidentzia konpondu da BAI/EZ
G.1.1	Ez dauzkate AMEak ateratzeko lanabes eta sistema guztiak eta AMEak biltzeko edukiontzia.		G.3.1.		
G.1.2	Manipulazio okerrak detektatu dira		G.3.2		
G.1.3	Irregularitasunak detektatu dira AMEn tindaketa etengabe eta erabatekoan		G.3.3.		
G.1.4	Kanalen etiketatuan okerrak detektatu dira, edo dokumentuak gaizki erregistratu direla sumatu da		G.3.4		
G.1.5	Enpresak sortutako eta bidalitako AMEen arteko korrelazioa ez da zuzena		G.3.5		

* Intzidentziaren xehetasunak «Oharrak» atalean zehaztu behar dira. «Neurri zuzentzaileak» atalean, intzidentzia konpontzeko enpresari agindutako neurriak adierazi behar dira (ezin bada hala egin, «Oharrak» atalean jarri)

Oharrak:	Interesatuaren alegazioak:

Sinadura: Ikuskatzailea

Sinadura: Establezimenduaren arduraduna

ÁLAVA
Santiago, 11 - 010002 VITORIA-GASTEIZ
Tel.: 945 01 71 71 - Fax: 945 01 71 79

BIZKAIA
M^a Díaz de Haro, 58 - 48010 BILBAO
Tel.: 94 403 15 00 - Fax: 94 403 15 98

GIPUZKOA
Avda. de Navarra, 4 - 20013 DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN
Tel.: 943 02 27 00 - Fax: 943 02 27 01



G-2. ERANSKINA. EAE-KO HILTEGIETAN SORTUTAKO AME-EN BOLUMENA

Hiltegiaren egoitza soziala:

Data: hilabetea/urtea

	URTEA					
	AME sortu/ hileko (1)	Sakrifikatutako ardi-aziendak		Sakrifikatutako behi-aziendak		
		<12 hilabete	>12 hilabete	<12 hilabete	<24 hilabete	>24 hilabete
Urtarrila						
Otsaila						
Martxoa						
Apirila						
Maiatza						
Ekaina						
Uztaila						
Abuztua						
Iraila						
Urria						
Azaroa						
Abendua						
Guztira						

(1) Hiltegiatan sortutako AME errearen pisua, enpresako erregistroen arabera

Bestelako datuak

AMEen azken norakoa	Adierazi enpresa
Gainerako azpiproduktuen azken norakoa	Adierazi enpresa
Hesteak (ardienak, ahuntzenak) jaki-industriatarako barrukiak prestatzeko erabili dira	Adierazi BAI/EZ
Hesteak ustu egin dira desegitera bidali aurretik	Adierazi BAI/EZ
Barailak ez dira AMEetan sartu	Adierazi BAI/EZ
Bestelakoak	

Erreferentziazko balioak, sortutako AMEak kontrolatzeko, sakrifikatutako abere-motaren arabera

Abere-taldea	AME		Kg.
Behi-azienda, 24 hilabete baino gehiago	Buru-hezurra baraila gabe, Amigdalak, Heste meharra eta mesenterioa Bizkar-hezurra.	Heste hutsa	20 KILO
		Heste hustu gabea	30 KILO
Behi-azienda, 24 hilabete baino gutxiago	Amigdalak, hesteak, mesenterioa	Heste hutsa	5 Kg
		Heste hustu gabea	10 Kg
Ardi-azienda, 12 hilabete baino gehiago	Buru-hezurra (burmuina, begiak), Amigdalak, Orno-muina Ileona eta barea		1,5 Kg.
Ardi-azienda, 12 hilabete baino gutxiago	Ileona eta barea		0,2 KILO

ÁLAVA
Santiago, 11 - 010002 VITORIA-GASTEIZ
Tel.: 945 01 71 71 - Fax: 945 01 71 79

BIZKAIA
M^a Díaz de Haro, 58 - 48010 BILBAO
Tel.: 94 403 15 00 - Fax: 94 403 15 98

GIPUZKOA
Avda. de Navarra, 4 - 20013 DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN
Tel.: 943 02 27 00 - Fax: 943 02 27 01



Azpiproduktu, konfiskazio eta itzulketen kontrola

H.1. Gainbegiraketa

- > Ekipoak eta lanabesak
- > Azpiproduktuen eta konfiskazioen maneia
- > Dokumentazioa

H.2. Maiztasuna

- > Ekipoak eta lanabesak
- > Azpiproduktuen eta konfiskazioen maneia
- > Dokumentazioa

H.3. Erabakia-jarduna

- > Ekipoak eta lanabesak
- > Azpiproduktuen eta konfiskazioen maneia
- > Dokumentazioa

H.4. Erregistroa/Txostena

H.5. Eranskinak:

- > H-1: Erregistroa/Txostena
- > H-2: Azpiproduktuen bidalketa-dokumentuak
- > H-3: Haragi ez-egokiak bidaltzeko ziurtagiri sanitarioa

> azpiproduktu
eta konfiskazioen kontrola



H KAPITULUA

AZPIPRODUKTU ETA KONFISKAZIOEN KONTROLA

Animali jatorriko azpiproduktuak dira 1, 2 eta 3 kategoriako gorpuzki osoak, abere-zatiak edo animali jatorriko produktuak, ez direnak giza kontsumorako. Hiltegietan sortzen diren azpiproduktuei dagokienez, zehatzago esateko, ondorengo azpiproduktuak definitzen dira 1, 2 eta 3 kategoriatan:

1 kategoriako materiak: BEE gaixotasuna omen duten abereen produktuak, BEE gaixotasunak erradikatzeko neurrien ondorioz sakrifikatu diren animaliak, AME, debekatutako substantziak dituzten produktuak, AME erretiratzen duten hiltegietako ur zikinak garbitzerakoan bildutako animali jatorriko materiala, 1 kategoriako materialekin nahastu den beste edozein material.

2 kategoriako materiak: simaurra eta hesteetako edukia, AME erretiratzen duten hiltegietako ur zikinak garbitzerakoan bildutako animali jatorriko materiala, albaitaritzako botiken hondakinak edota hondakin kutsakorrek dituzten produktuak, 2 kategoriako materialaren eta 3 kategoriako materialen arteko nahasketak.

3 kategoriako materiak: giza kontsumorako egoki diren animalia sakrifikatuen zatiak izanagatik arrazoi komertzialak direla-eta azkenean merkaturako ez direnak, giza kontsumorako ez egokitzat jo direlako baztertutako haragiak izan arren, gaixotasun transmitigarrien zantzurik ez dutenak; larruak, apoak, ante-mortem ikuskapenaren ondoren sakrifikatzeko egoki deklaratu diren abereen lumak; ante-mortem ikuskapenaren ondoren sakrifikatzeko egoki deklaratu diren abere ez hausnarkarien odola.

Albaitari ofizialak egiaztatu behar du hiltegian azpiproduktuak higiene osoz bildu, gorde eta tratatzen dituztela eta egiaztatu behar du, halaber, sortutako azpiproduktuak dago-kion enpresara bidaltzen direla, ziurtatzeko, hiltegiaren eta enpresa garraiatzaile/trasformatzailearen artean darabilten dokumentazioa aztertuta, azpiproduktuok ez direla iriste elika-katera.

H.1. GAINBEGIRAKETA

Kontrolak «Espezie Handietako Hiltegiak» instrukzio teknikoak «azpiproduktu, konfiskazio eta itzulketen maneiua» atalean ematen dituen jarraibideen arabera egin behar dira.

H.1.1. Ekipoak

Begiratu behar da horretarako besterik ez diren edukiontzi berezi estankoak badiren, tapa eta guztikoak, likidorik ez isurtzeko modukoak, eta establezimenduan erabiltzen diren bestelako ontzietatik ondo bereizteko modukoak diren, koloreagatik, neurriagatik, edo

ageriko identifikazioaren bategatik. Sakrifizio-lerroan azpiproduktuak edota konfiskazioak sortzen dituzten puntu guztietan egon behar dute edukiontziok eskura.

Hondakin inorganikoak jasotzeko edukiontziak ezberdinak izan daitezke aurreko puntuan adierazitakoen aldean, establezimenduaren jardueraren arabera, baina, kasu horretan ere, hondakinok behar bezala bildu eta desegingo direla bermatu behar dute.

H.1.2. Azpiproduktu/konfiskazioen maneia

Produktuak higienikoki jasotzen direla egiaztatu behar da, enpresak sortzen duen bolu-mena kontuan hartuta.

Kontsumorako ez-egoki deklaratu diren haragiak sakrifizio-lerrotik baztertu behar dira, ikuskatzaileak «Espezie Handietako Hiltegiak» instrukzio teknikoaren «Lanen higieena» atalean xedatzen diren baldintzatan kontsumorako ez-egoki direla ebazten duen bezain pronto.

Begiratu behar da manipulazio-gunean produktu horiek uneoro ebakutzen dituzten, hau da, edukiontziak betetzen diren bakoitzean, eta ez pilatzea azpiproduktu, hondakin edota edukiontzi beterik laneko tokietan.

Halaber, egiaztatu behar da egunero ateratzen dituztela edukiontziok enpresatik, edo, hala ez bada, enpresan badagoela lokal bat edo gune bat hozkailua duena azpiproduktu organikoak biltegitratzeko, edo hozkailurik gabeko lokal bat edo gune bat azpiproduktu ez-organikoak biltegitratzeko. Edukiontziak ez badira egunero ateratzen, alegia, atera arte bilduta gordetzen badira, kasu horretan ere, establezimenduaren higieena bermatzeko moduko maiztasunez atera behar dira.

Produktu batzuk itzuli egin badira (ekoizleak agindu duelako, iraungitze-data edo kontsumitzeko epe egokia pasa delako edo beste edozein arrazoi delako), produktuok biltegitratu egingo dira baina gainerako produktuetatik argi bereizita, itzulitako produktua argi eta garbi identifikatutako.

H.1.3. Dokumentazioa

Egiaztatu behar da eraldaketa industrialerako sortu diren AZPIPRODUKTUAK hiltegiak prestatutako laguntza-dokumentazioaz bat joango direla helmugara iritsi arte, eta, ondoren, tratamendu-enpresak berak produktu horiek hartu eta bidali izanaren ziurtagiria eman duela (H-2 eranskineko ereduak).

Egiaztatu behar da KONFISKAZIOAK Ikuskapen Teknikoak emandako ziurtagiriaz bat bidali behar direla tratamendu-plantara. Ziurtagiri horretan zenbat eta zer-nolako konfiskazioak diren adierazi behar da, eta AMEak desegiten dituen dokumentuari gehitu behar zaio, Ikuskapen Teknikoari itzultzeko helmuga eta tratamenduari onespena emateko (H-3 eranskineko ereduak).

ITZULKETEN kasuan, egiaztatu behar da enpresak baduela honako datuok, gutxienez, adierazten dituen dokumentazioa: noiz itzuli diren, zein produktu itzuli diren, zenbat, zer arrazoiengatik itzuli diren eta nora bidaliko diren.

H.2. MAIZTASUNA

H.2.1. Ekipoak

Egunero, sakrifizioari ekin aurretik, produktuak behar bezalako higieenez jasotzeko ekipoak eskura daudela egiaztatu behar da.

H.2.2. Azpiproduktu/konfiskazioen maneia

Egunero, prestaketa-lanetan, manipulazio-lanak ondo egiten diren behatu behar da. Uneoroko gainbegiraketa horretaz gain, eguneko jardunean, al baitariak agindutako unetan, gutxienez bitan, manipulazioa ondo egiten dela egiaztatu beharko da berriz.

Sakrifizioa amaitzen denean, egiaztatu behar da azpiproduktu/konfiskazio guztiak kanporatu direla eta ez dela arrastorik geratu sakrifizio-nabeen.

